

# ek!

...eta kitto!  
Euskara Elkartearen astekaria

2022ko otsailak 4 · 1215. zenbakia

## HAMABOST URTE HERRIKO HISTORIA KONTATZEN



### MERKEALDIA

+ 2. BETAURREKOAK OPARI

Kontuak eta opariek hargailuaren arduraren menpe daude.



Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

[www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com) 

# AURREZ-AURREKO IKASTAROAK LANBIDEK GUZTIZ SUBENTZIONATUTA ETA LASTER HASTEKOAK



Debegesan eskainiko dira:  
Azitaingo Industrialdea, 3 Bis 20600 EIBAR

	<p>"CERTIFICADO Profesional de Seguridad Informática" <i>420 ordu</i></p>	<p>"CERTIFICADO de Profesionalidad de Operaciones de Grabación y Tratamiento de Datos y Documentos" <i>360 ordu</i></p>	
	<p>"CERTIFICADO de Profesionalidad de Gestión Ambiental" <i>420 ordu</i></p>	<p>"CERTIFICADO de Profesionalidad de Gestión de Servicios para el Control de Organismos Nocivos" <i>430 ordu</i></p>	

**Ikastaro guztiak doanekoak, aurrez-aurrekoak %100ean, plaza mugatuekin eta laster hastekoak**



Informazio gehiagorako, ez izan zalantzarik!  
[formacion@urko.net](mailto:formacion@urko.net)  
+34 688746238



# Barixakuak Jolasian

HH eta LH 1-2 mailetako umeei eta euren familiak primeran pasatzeko kaleko-jolas saioak.

**OTSAILEKO SAIOAK (barixakuetan 17:00-18:00)**



**Otsailak 11  
Txaltxa-Zelai**



**Otsailak 18  
Torrekua**



**Otsailak 25  
Urkizu**



**Erosteko ahalmenari eustea eskatzen dugu...**

...KPI errearen arabera neurtuta, eta gutxieneko pentsioen igoera. Testu hau sinatzen dugunok Diputatuen Kongresuko kide guztiei eskatzen diegu behar diren legegintza-urratsak eman ditzatela:

- 2022rako eta hurrengo urteetarako pentsioen erosteko ahalmena bermatzea, KPI errearen igoeraren arabera (urteko KPI metatua), 2011ko erreformaren aurretik egin zen bezala, eta 2021ean pentsioen erosteko ahalmenaren %3ko galera konpentsatzea.

- Pobrezia-atalasetik beherako pentsiorik ez dagoela bermatzea, soldatetan eta pentsioetan dagoen genero-arrakala ezabatuz eta gutxieneko pentsioa handituz LGS-rekin parekatu arte, eta batez besteko soldataren %60an kokatzea, Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen bezala.

- Pentsio publiko duin bidezkoak eta nahikoak eta Pentsio Sistemaren izaera publikoa bermatzea, 2011, 2013 eta 2021eko erreformen murrizketak indargabetuz eta sistemaren pribatizazio osoa edo partziala baztertuz, edozein formula erabilita ere.

**Espainiako hainbat erkidegotako pentsiodunen erakunde**

"Dopaminak behar ez duguna erostera bultzatzen gaitu: zapatilla batzuk, ezpainak pintatzekoak... Gure bizitza hobetuko luketela-koan. Dopaminak etorkizuna du jopuntuan: baina gaztea pozik ez egotea positiboa da, heldua pozik ez egotea suntsigarria den bezala. Mick Jagger-ek 4.000 emakumerekin oheratu dela dioenean, argi dago gero eta gutxiago gozatuko zuela. Dopaminak tolerantzia garatzen duelako: bi donut jaten badituzu, bigarrenarekin gutxiago gozatuko duzu. Jagger-ek 20.era heltzerakoan hobe zuen gelditzea; handik aurrerakoek ez ziotelako ezer aportatuko".

"Facebook ez da lagunak egiteko, nitaz zer pentsatzen duten jakiteko baizik; eta Facebook-ek badaki emozionalki jendea mintu egiten duela, baina geratu beharrean bultzatu egiten du adiktoak sortzeko, tabakoarekin sasoi batean gertatu zen modura. Bideojokoak adiktiboagoak dira umeengan ludopatía helduengan baino. Desioaren zirkuitua burmuinean oso primitiboa da: orain nahi dut. Baina lobulo frontalak epe luzea kontuan hartzen du: arazoa da alde hori ez dela garatzen hogei urte izan arte. Nerabezarotan inork ez du pentsatzen epe luzera. Bideojoko sortzaileek badakite hori eta psikologoekin lan egiten dute adikzioa sortzeko diseinuak egiterakoan".

"Garapenaren ikuspuntutik, zauritutako animaliak gara. Tribuen tamaina handitzen joaterakoan burmuina ere horrela hazi da, jende gehiago maneiatzeko buruak ere lan gehiago egin behar duelako. Horregatik handitu da giza harremanekin, baina kultura modernoak bakartzera bultzatzen gaitu. Kontu egin aurrezku honetaz: ez dugu nahi asilora joan. Bada agure asko, euren etxeetatik egoitzara joan eta beste batzuekin harremanetan hasten direnean, hamar urte gutxiago balute moduan hasten direla jokutzen. Bizitasuna berreskuratzen dute, hori egiten diegu elkarr".

**DANIEL LIEBERMAN, sendagilea (hirurak bereak)**

**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

**OBEIDU.-** Men egin, esana bete, obeditu. "Gitxittu detsat erreziñua, ikasi deixan nausixeri obeitzen". Amore eman, etsi, amain eman. (Mutikuen arteko burrukak obeidu arte izaten ziran, batak edo bestiak amore emon arte). "Jarraitu holaxe!... Ez obeditu!, hi baiño lehenago nekatuko dok-eta".



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarte

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72

**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**

Ana Aizpurua, Ekhi Belar,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA**  
Maku Oruezabal

**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**

Maitane Campos eta  
Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA**  
Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA**  
Belen Ulazia

**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**

8.150 ale

**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





## Debegesa, Debabarrena berroneratzeko ponentzian

>>> Debabarrena eskualdea suspertzeko Eusko Legebiltzarrean egunotan garatzen ari den ponentzian hartu zuen parte Juan Ángel Balbás Debegasako zuzendari nagusiak aurreko astean. Bere hitzaldian, besteak beste, Debabarreneko lurralde-desorekaren arrazoiak eta eskualdearen ezaugarri sozioekonomikoak azaldu zituen eta, horrekin batera, ikuspegi sozioekonomikotik begiratuta eskualdeak dauzkan beharrak nabarmendu zituen.

Eskualdearen egoera azaltzeaz gain, Debabarreneko egoerari buelta emateko garapen agentziak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak azaldu zituen zuzendariak: “Neurri horiek eskualdeko zortzi udalek eta Garapen Agentziako zuzendaritzak osatzen dugun Debegesako Administrazio Kontseiluan landu dira eta horietako batzuk dagoeneko aipatu dira orain arte beste administrazio batzuetan egindako agerraldietan”.



## Negulekuak bertan behera lagatzeko erabakia hartu dute

>>> Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatzen duten Negulekuak programa bertan behera lagatzea erabaki dute, jolas-guneetara oso jende gutxi joan dela ikusi dutelako. 2021eko abenduaren 27an hasi

zuen ibilbidea aurtengo edizioak Astelena, San Andres eta Errebaleko guneetan, eta 28an ibili zen jende gehien: egun horretan 125 haur egon ziren hiru guneetan. Hala ere, aforoaren %21 baino ez zen bete.



## Buru Osasunari buruzko udal planaren eskaerari ezetza

>>> Beste udalerrri batzuetan bezala, Eibarren ere Buru Osasunari buruzko udal plan integrala eskatzeko mozioa aurkeztu zuen Elkarrekin-Podemosek urtarrileko azken astelehenean egindako plenoan, baina Udalbatzak atzera bota zuen PSE eta EH Bilduren kontrako botoekin, nahiz eta koalizioko ordezkari bakarrak eta alderdi jeltzaleko zinegotziek aldeko botoa eman.

Elkarrekin-Podemoseko Isabel Fernandezek azaldu duenez, “Udal Plan Integrala egitea eskatu genuen, Buru Osasunaren inguruko prebentzioa eta zaintza komunitarioa garatzeko, zeharkako neurriak aurreiku-

siz, horiei Eibarko Udalak dituen udal-eskumenak gehituta. PSE-EE eta EH Bilduk ordezkari beste mozio bat aurkeztu zuten, biek elkarrekin, baina horretan ez da aurreikusten Buru Osasunari buruzko udal planik. Onartu den mozio horretan Osakidetza estutu egiten dute, Buru Osasunaren arloko arreta indartu dezan, eta zehazten dituzten gune edo auzoetan Udalarekin elkarlanean aritu dadin, besterik ez”. Hori dela eta, Elkarrekin-Podemoseko bozeramaileak uste du arlo horretan plan integrala egiteko aukera galdu egin dela, onartu den mozioa “eskasa” dela gaineratuta.



## 1.956 kontsulta artatu zituzten KIUB-en iaz

>>> Udalak aste honetan eman dituen datuen arabera, Eibarko Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bule-

goak (KIUB) 1.956 kontsulta artatu zituen iaz eta, horrekin batera, bitartekaritza-lanak egin zituen 171 erreklamazio-tan. Aurreko ekitaldian bezala, eta pandemiak eragindako ezohiko egoeraren ondorioz, arreta emateko bide nagusiak telefonoa eta modu telematikoa izan dira. Esan dutenez, “bi kanal horiek erabili dira gehienbat”. Iaz egindako 1.956 kontsultetatik zuzenean bulegoan egindakoak 34 bakarrik izan ziren, telefonoz egindakoak 1.209 eta Internet bidezkoak 713. Oro har, kontsulteren kopuruak nabarmen egin zuen gora: 2021ean 1.742 kontsulta izan ziren, eta iaz 1.956.



## Udal aurrekontua babes handiarekin onartuko da

>>> Babes zabalarekin onartuko da Eibarko Udalaren aurtengo aurrekontua, PSE-EEk EAJ-PNV udal taldearekin aurrekontu-akordioa lortu duela jakinarazteko sozialistek barriak egindako agerraldian esan zuten bezala. Pixkat aurretik jeltzaleek egin zuten prentsurrekoan azaldu zituzten talde biek adostutako zuzenketak zeintzuk diren.

Bi alderdiek adostu duten akordioari esker, Udaltza osatzen duten 21 zinegotzietatik 15 zinegotzik aldeko botoa emango dute. Sozialistek gaineratu zuten bezala, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos oposizio beste bi taldeekin negoziazioak zabalik daude oraindik. Jon Iraola alkateak eta negoziatza-

zio-prozesuaren arduraduna izan den Ana Telleria Ogasun alorreko zinegotziak azaldu takoari jarraituta, “jeltzaleek aurkeztutako zenbait zuzenketa onartu dira eta bi alderdiek adostutako beste zuzenketa batzuk ere sartu dira aurrekontuan”.

Azpimarratu zuten bezala, “alderdi biek adostasunak lortzeko izan duten borondateari esker” izan da posible akordioa lortzea eta, alde horretatik, pozik daude: “2022ko aurrekontua aberasten du, eta hainbat eremutan eragingo duten jarduerak izango dira, besteak beste, azpiegiturak, aparkalekuak, merkataritzak, kulturak edo kirolak. Eta herriko eremu eta auzoen onerako izango dira”.



## Bedeinkatu ditugu aurten ere

>>> Ohiturak agintzen duen bezala, atzoko egunez herriko eliza guztietan egin ziren ospakizun bereziak, San Blas eguna

ospatzeko, eta eibartar askok eramane zituzten opilak bein-katzera. IRUDIAK ikusteko joan etakitto.eus-era.



## Lan erreformaren kontrako protestak enpresa eta plazetan

>>> Madrilgo Kongresuak atzo onartu behar zuen lan erreformaren kontrako mobilizazioak egin ziren eguaztenean Euskal Herri osoko enpreetan, baita herrietako plazetan ere, euskal gehiengo sindikalaren deiarkein bat eginez.

Sindikatuetakoa ordezkariek salatu dutenez, “lan erreforma indargabetu egingo zutela esaten ibili dira hainbat urtetan, baina orain arte egin diren lan

erreformen murrizketa guztiak bere horretan mantentzen dira: kaleratze merkeak, patronalaren aldeko erabakietan, suna lan baldintzak aldatzeko, enpresa zein estatu mailako hitzarmenak herrialde mailako hitzarmenen gainetik mantentzea...”.

Horren aurrean, haserre daudela adierazteko kontzentrazioak egin zituzten herritar askok.




## Nordic Walking monografikoa emango du kiroldegia martxoan

>>> Eibarko Kirol Patronatetik jakinarazi dutenez, otsailaren 10etik aurrera Nordic Walking-en monografiko baterako izen-ematea zabalduko dute. Klaseak martxoko lau barixak

izango dira, 17:30etik 19:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero Ipurua kiroldegian galdetu edo, bestela, 943 20 32 40 telefono zenbakira deitu.

## TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

## Udal gobernuak “despotismo ilustratuaren” estiloari jarraitzen diola uste du Errebal Bizirik-ek

>>> Errebal Bizirik auzo-elkar-tearen ustez, Eibarko udal politika “despotismo ilustratuaren parametroetan” gauzatzen da, “are gehiago udal gobernuak etengabe aurre egiten dienean ekialdeko auzo-elkarteei”. Salatzen dutenez, “dena herriaren alde, baina herririk gabe”, hori da Udalaren estiloa: “Esaldi horrek esaten duen moduan, gobernuak herriaren alde edo hura hobetzeko neurriak hartzen ditu, baina erabakiak herriaren parte-hartzerik eta esku-hartzerik gabe hartzen dira”.

Hori dela eta, ez dute ulertzen nola eman berri dioten EloGE 2021 Bikaintasunaren Zigilua Eibarko Udalarari, “gobernu taldea nabarmentzen baita auzo-elkarteeikiko eta, oro har, ekialdean (Errebaletik Azitainera) bizi diren guztiekiko duen apatia, utzikeria eta iluntasunagatik. Galdetzeko bestela Errebal Bizirik elkartekoei, Txontako La Plazoleta elkartekoei edo “No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai” eratu berri duten auzo elkarteari.”



Epaitegiren batean azken urteetan Eibarren gertatu diren gauzak ikertzen hasiko balitz, beste toki batzuetan bezala hemen ere komisiokoak kobratu direla aurkituko balute, ez lirakeela harririk diote: “Jakina, ezin dugu Eibarren komisioren kobrantza salatu, baina baieztatu dezakegu Eibarko herritarrek ez dutela ezer irabazi Alfa, Txonta, Imesa edo Errebal bezalako auzietan. Norbaitek zerbait irabazteko, hori ez da herria izan, herritarrek ez dute ezer irabazi”.

## “Eibar Oparitu” txartela merkealdietan erosteko ere erabili daiteke

>>> Eibar Merkataritza Gune Irekiak tokian-tokiko merkataritzari laguntzeko kanpaina berria abiatuko du astelehenean. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatu duten ekimenarekin, “Eibar Oparitu” txartela erabiltzera animatu nahi dute jendea. Horrela, erosketak herrian bertan egiterakoan, Eibarko dendariei ere lagundu nahi zaie. Txartelari lotutako kanpaina abenduan hasi zen berez, baina orain merkealdiak hasiko direla-eta, hori baliatu nahi dute, bultzada handiagoa emateko.

“Eibar Oparitu” txartela interesatuen erosi ahal izango du, beste pertsona batzuei oparitzeko, eta oparia jaso dutenek diru hori Eibarko establezimenduetan gastatu beharko dute. Asteleheneetik aurrera egongo da txartela erosteko aukera, 10:00etatik aurrera, [www.erosieibarren.eus](http://www.erosieibarren.eus) plataformaren bidez edo, bestela, 747400919 telefono zenbakira deituta.

Kanpainari atxikitu zaizkion eta datafonia duten saltoki guztietan (ostalaritza establezimenduetan ere bai) erabili



ahal izango da, erosketak edo egindako gastu-zenbatekoak txarteletik deskontatuko baitira zuzenean.

Eibar Oparitu txartelak eskaintzen duen abantaila nagusia, bestalde, txartelarengatik ordaindutakoa baino gehiago gastatzeko aukera ematen duela da: 30, 40 edo 70 euroren truke erosi ahal izango dira txartelak eta, horiek erabilia, 40, 60 eta 100 euroko erosketak egin ahal izango dira, hurrenez hurren.

Txartelek ez dute iraungitzedatarik eta kanpainarekin bat egin duten herriko 180 establezimenduetan erabili daitezke (zerrenda osoa [www.erosieibarren.eus](http://www.erosieibarren.eus) helbidean ikus daiteke, baita ere txartelarekin batera emango duten informazio-liburuxkan).



	Guztira	Emakumeak	Gizonezkoak
0-25 urte (6.453):	3.139 (%48'65)	3.314 (%51'35)	
26-50 urte (8.470):	4.137 (%48,85)	4.333 (%51'15)	
51-65 urte (5.837):	2.942 (%50'40)	2.895 (%49'60)	
66-100 urte (6.563):	3.809 (%58'00)	2.754 (%42'00)	
100 urtetik gora:	7, guztiak emakumeak		

Eibarrek biztanleak galtzen jarraitzen du: azken urtean 236.

## Gehiago ere izan ginen ba!

Udaleko Idazkaritza Nagusiko Estatistika Atalak kaleratutako datuen arabera, 2022ko urtarrilaren leian Eibarrek 27.330 biztanle zituen. Kopuru horretan, 738 emakume gehiago dira gizonezkoak baino: 14.034 emakume eta 13.296 gizon, zehazki. 2021ean 27.566 biztanle zituen herriak, 2020an 27.848 eta 2019an 27.600. Hau da, orain iaz baino 236 gutxiago gara, 2020an baino 518 gutxiago eta 2019an baino 270 gutxiago. Urte hartan, 2019tik 2020ra 248 igo zelako kopurua, ondoren 2020tik 2021era 282 jaisteko eta azken urtean, gutxiago, baina berriro ere jaisteko.

Udaleko Estatistika Atalak ateratako datu horiei erreparatu, adin-taldeka eta generoaren arabera sailkapenean honakoa ondorioztatu dezakegu: Otiak 50 urtera arteko tartean gizonezkoak zertxobait gehiago badira ere (%51-%49), 51tik 65era guztiz parekatzen dira kopuru biak. Adin horretatik aurrerakoak beste bide bat hartzen du eta 65etik 100 urtera artekoetan emakumezkoak dira gehiengo (%58-%42). Eta nagusitasun osoa erakusten dute 100etik aurrerakoetan: zazpi emakumezko heldu dira adin horretara, gizonezkoak ez da goen bitartean.

	Ema Giz			Ema Giz			
Afganistan	6	3	3	Italia	18	7	11
Albania	28	10	18	Japonia	5	3	2
Alemania	5	2	3	Kamerun	6	1	5
Angola	3	3		Kanada	1	1	1
Aljeria	47	23	24	<b>Kolonia</b>	<b>213</b>	<b>108</b>	<b>105</b>
Argentina	23	13	10	Kongo	7	2	5
Australia	2	1	1	Kroazia	1	1	
Bangladesh	6	4	2	Kuba	34	14	20
Belgika	2	1	1	Libano	1	1	1
Benin	1	1	1	Mali	11	1	10
Bielorrusia	1	1		<b>Maroko</b>	<b>944</b>	<b>431</b>	<b>513</b>
Boli Kosta	6	2	4	Maurizio	1	1	1
Bolivia	45	21	24	Mauritania	7	3	4
Bosnia-Herzeg.	4	2	2	Mexiko	12	8	4
Brasil	80	56	24	Moldavia	1	1	
Britania Handia	23	9	14	Nepal	9	3	6
Bulgaria	3	1	2	<b>Nikaragua</b>	<b>206</b>	<b>143</b>	<b>63</b>
Costa Rica	1	1		Nigeria	45	22	23
<b>Dominikar Errep.</b>	<b>110</b>	<b>56</b>	<b>54</b>	<b>Pakistan</b>	<b>116</b>	<b>41</b>	<b>75</b>
Egipto	3	2	1	Palestina	2	2	2
Ekvador	19	9	10	Paraguai	9	6	3
Ekvatore Ginea	4	2	2	Peru	20	13	7
El Salvador	16	6	10	Polonia	1	1	
Eritrea	4	2	2	Portugal	85	31	54
Errumania	50	27	23	<b>Senegal</b>	<b>126</b>	<b>25</b>	<b>101</b>
Errusia	7	4	3	Serbia	1	1	
Estatu Batuak	8	2	6	Siria	2	2	
Filipinak	2	2		Suedia	1	1	1
Finlandia	1	1		Tailandia	1	1	
Frantzia	9	4	5	Togo	1	1	1
Gambia	1	1	1	Txile	6	3	3
Ghana	3	2	1	Txina	37	22	15
Ginea	5	1	4	Ukraina	15	9	6
Herbeherak	2	1	1	Uruguay	3	3	3
Hegoafrika	1	1		<b>Venezuela</b>	<b>135</b>	<b>69</b>	<b>66</b>
Honduras	54	42	12	Zania	1	1	
Hungaria	1	1		Apatridak	38	24	15
India	3	1	2	Harreman diplomatikoen gabe	2	2	2
Irlanda	6	2	4				

**Guztira 77 herrialdeetatik etorritako 2.734 lagun daude Eibarren: 1.326 (48'5) emakumezkoak eta 1.408 (%51'5) gizonezkoak.**

menagoa da. Horrela, 25 urte arterako biztanle-kopurua populazio guztiaren laurdenera ere iristen ez denean (%23'6), 26tik 50erainoko tartean pisu handiagoa du (%31), kopuruan ere bi mila lagun gehiago baitira tarte horretakoak.

Kanpotik etorritako biztanleei dagokienez, gurean 77 herrialdeetatik etorritako 2.734 lagun daude, apatridak barne. Horetatik 1.326 emakumeak dira eta 1.408 gizonezkoak. Marokok du herritar gehien gurean, ia milara iristen baita handik etorritakoen kopurua: 944, hain zuzen. Ehun lagunetik gorako ordezkariak duten bestelako herrialdeak honakoak dira: Kolonia (213), Nikaragua (206), Venezuela (135), Senegal (126), Pakistan (116) eta Dominikar Errepublika (110). Ikusten denez, hegoamerikarren presentzia ere nahiko esanguratsua da. Eta Afrikako Senegaldik eta Asiako Pakistandik etorritakoak ere asko igo dira azken urteotan. Brasil (80), Honduras (54), Errumania (50), Aljeria (47), Bolivia (45), Nigeria (45), Txina (37) eta Kubatik (34) gureganatutakoak ere ez dira gutxi. Azkenik, badira 38 apatrida edo herrialderik ez dutenak eta beste bi harreman diplomatikorik gabekoak. ■

Bestalde, azken hamarkadetakoa jaiotze-kopuruaren jaiotsiera ere gero eta nabar-



## Ermutik Eitzagara egingo den manifestaziora joateko deia

Domekan, otsailak 6, beteko dira bi urte Zaldibarko zabortegia amildu zenetik eta, urteurrenaren harira antolatutako diren berri emateko, agerraldia egin zuten eguaztenean Zaldibar Argitu, Aldaketaldia eta Ekologistak Martxan plataformek, besteak beste. Prentsurrekoan herritar guztiak deitu dituzte domekan, 12:00etan, Ermuko plazan batu eta Eitzagara manifestazioan joateko. Han Zaldibar Argituk antolatutako ekitaldia egingo da, 13:00ean.

**V**erter Recycling enpresako zabortegian gertatutako ezbeharra gogora ekartzeaz gain, orain arte 57 erakunderen babesajaso duen manifestua aurkeztu zuten Zaldibar Argituko eta Aldaketaldia 2022ko kideek, Arrate Kultur Elkartearen egindako prentsurrekoan.

“Aro baten amaieran gaude. Muga energetikoak, materialak eta biologikoak gero eta nabariagoak dira; klima-aldaketak, biodibertsitatearen galerak edota lurzorua, airearen eta uraren kutsadurak erakusten duten bezala”, adierazi zuten.

Klima-aldaketaren aurrean hartu beharreko bidea “desazkundera eta trantsizio ekosoziala” direla pentsatzen dute manifestua babestu duten eragileek eta “2030erako Euskal Herriko desazkunde justurako txoke planaren” beharra dagoela nabarmendu zuten.

Zaldibar Argituko Gaizka Zabartek gogora ekarri zuen 2020ko hondamendian gertatutakoa: “Eitzagan batuko gara, Eitzaga delako hondamendia-aren epizentroa. Eitzagan hil ziren Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran. Eitzagan geratu zen Joaquin Beltran, betirako. Ez zen istripua izan, hilketa baizik. Zuhurtziagabeko homizidioa onartu zuten Verterreko ardura-



**“Hildakoen ostein, Eitzagako biztanleak izan ziren kaltetuenak”**



BIDEOA ikusteko eskaneatu QR kodea

dunek eurek. Hori onartu zuten epaiketa eta kartzela saihesteke. Argitu den kontuetako bat da heriotza horiek ekidin zitezkeela, Barinaga eta konpainiak ekidin zitzaizketen. Baita Eusko Jaurlaritzako arduradunek ere, zegokien lana egin izan balute”.

Nabarmendu zutenenez, “Eitzagako biztanleak izan ziren, hildakoen ostein, kaltetuenak, Eitzagako lurrak, urak eta airea. Eta hortik inguruko herrietara zabaldu zen kutsadura. Miserablea benetan, lehenengo Eusko Jaurlaritzak eta segidan Zaldibarko Udalak, osasun-azterketak ukatzea Eitzagako 37 bizilagunei”.

Bi urte hauetan erakundeek hondakinen kudeaketan gauzak hobetzeko astia izan dutela uste dute, “baita Verterrekoek eragindako hondamendian arduradun politikoek izan dituzten ardurak argitzeko ere. Baina agintariek lehenago lepotik burua”. ■



<<< **GAIZKA ZABARTE** • Zaldibar Argitu >>>

# “Bi urte eta gero, Jaurlaritzaren ekarpen handiena Tapia legea da”

Aldaketaldia eta Larreko Mahaia plataformekin batera, manifestazioa antolatu dute Zaldibar Argitukoek otsailaren 6rako. Ermuko plazatik abiatuko da, 12:00etan, Eitzagaraino joateko, eta han Zaldibar Argituk antolatutako ekitaldia egingo da. Plataformako kideek argi daukate: “Guretzat langileen bizitzak kapitalaren irabazien gainetik daude, jendearen osasuna eta ongizatea ere kapitalaren gainetik. Eta higiene demokratikoa erregimen klientelar honen gainetik”.

## **Bi urte eta gero, zein puntutan gaudela uste duzue?**

Batetik, atzera begiratzeko puntuan, gogoratu behar delako hor Alberto Sololuze eta Joaquin Beltrán hil zirela, Joaquin Beltrán hortxe gelditu dela betirako. Gertatu dela Eitzagan, azpiegituren aldetik azken hamarkadetan oso zigortua izan den auzoan eta, gainera, bertako biztanleek behin eta berriro, baita zaborteziaren auzi honetan ere, baztertuta eta txarto tratatuta sentitu dira. Hasieratik eskatu zuten azterketa medikua egiteko, eta lehenengo Eusko Jaurlaritzak eta gero Zaldibarko Udalak ezetza eman zien. Bestetik, atzera begira, bi urte hauetan zer egin du Jaurlaritzak berari dagokion esparruan, ardurak bere gain hartzerakoan? Ba, ikusten duguna da ez duela ezer egin, egin duen ekarpen handiena azken urteetan ingurumenari dagokionez Tapia legea dela. Tapia legearen entsegu bat Eitzagako zaborteziaren gertatu da, Udalarenak ziren eskumenak 2020ko otsailaren 6an Jaurlaritzak bere gain hartu zituen, eta gaur arte. Berak egin ditu desjabetzeak, berak erabaki du zelan eta non handitu zabortezia eta abar.

## **Zer dela eta diozu Eitzaga bes-tela ere auzo kaltetua dela?**

Eitzagan begirada 180 gradu emanez gero ikusten da hori. Jende asko ez da ohartuko



beharbada, baina autobidea ez da Ermutik pasatzen, Zaldibarko lurretatik doa, hau da, Eitzagatik. Aixolako presa, urez hornitzeko, hor daukate. Saihesbidea. Eta abar luze bat. Bertakoen sentimendua matxakatuak izanaren sentimendua da. Eta zabortezi honen hastapenetara, 1995-1996. urteetara bagoaz, Udalarekin etenbako tirabirak izan dituzte.

## **Zer gertatu da arduradun politikoekin?**

Datuetara begira, konklusioa garbia da. Orduan arduradu-

nak zena, Iñaki Arriola kasu, orain beste sail baten buru da. Ernesto Martinez de Cabredo, orduan Ura agentziako buru zena eta krisi honetan lehen lerroan egon zena, orain Eusko Trenbide Sareko zuzendaria da. Eta sailburuordea zen Elena Moreno gaur egun Merkataritza zuzendaria da. Horrek ematen du ardura politikoen neurria.

## **Azken egunotan Europatik ailegatu diren berriak itxaropena pizteko modukoak dira?**

Urtarrilaren 27an Europako

Parlamentuko Eskarien Batzordeak erabaki zuen, aho batez, ikerketarekin segitzea, eta eskatzea Eusko Jaurlaritzari eta Europar Batzordeari informazio gehiago, gehiago behar zuelako. Horren kontrapuntua da Eusko Legebiltzarra, non Eusko Jaurlaritzak sostengatzen duten alderdiek erabakita, ezetz esan zitzaion ikerketa batzorde bat sortzeari. Beraz, Europako Parlamentuan batzorde bat daukagu Eitzagako zaborteziaren ikertzeko, eta Eusko Legebiltzarrean ez.

## **Eta zer gertatu da enpresako, hau da, zaborteziaren arduradunekin?**

Denok dakigun zerbait: aberatsak ez doazela kartzelara. Lehenengo langileen osasunaren kontrako ustezko delitua ikertzen zuten auzitik kanpo utzi gintuzten Zaldibar Argitu, Eskubide Sozialen Karta eta Ekologistak Martxan. Hori erabaki eta, jarraian, akordio bat lortu zuten. Horrela, Verterreko buruek epaiketa publiko bat saihestea lortu zuten, horrek dakarren oihartzunarekin. Eta, horrekin batera, kartzela zigorra saihestea, indemnezioaren truke eta gertatutakoa zuzurtziazko homizidio bat izan zela onartzearen truke. Gutxienez badakigu homizidio bat izan zela, ekidin zitekeela. Hori argi gelditu da. Eta beste auzian, ingurumenaren kontrako delitua aztertzen den auzian ere presente gaude, akusazio moduan. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

## **Gobernuaren menpe dagoen CEDEX-ek akats ugariatzeman omen ditu...**

Obra Publikoen Ikerketa eta Esperimentazioarekin arduratzen den CEDEX-ek egin dako txostena hor dago, mahai gainean. Amiltzearen kausak zehatz aztertu dituzte eta, labur esateko, akats pila bat agertu dira bai proiektu teknikoetan, bai zaborteziaren kudeaketan, eta baita kontrol publikoan ere.



Felix Elkoiribek egindako lana baliatu eta aurrera begira jarri nahi du jubiletxea Jesus Maria Iparragirrek. EKHI BELAR

<<< JESUS MARIA IPARRAGIRRE • Untzagako jubilatuen etxeko presidentea >>>

## “Jubiletxea eraberritu behar dugu, gauza batzuetan atzean geratzen ari garelako”

Aro berria hasi dute Untzagako jubilatuen etxean. Hainbat urtetan zentroaren arima izan den Felix Elkoiribek kargua laga du eta Jesus Maria Iparragirrek hartu du bere tokia. Ondo ezagutzen dute elkar biek eta azken urteotan elkarlanean ibili dira, orain eman duten pausoa naturala izan delarik. Ilusio handiz ekin dio aro berriari Iparragirrek, etorkizunera begira jarrita dagoen jubilatuen gidaritzan.

**Untzagako jubilatuen etxeko presidente kargua hartu duzu, baina ez da horrelako saltsatan zabiltzan lehen aldia. Gustatzen zaizu?**

Orain dela 41 urte Ipurua auzoko ordezkaria izan nintzen Udalean. Auzoko kezkak Udaleran eramatea zen nire egin-beharra, besteak beste, baina auzotarrek ez zuten asko parte hartu. Bi urtez egon nintzen

karguan. Bestetik, San Kristobal auzoko jai-batzordean ibili naiz. 2018an Felix Elkoiribek Untzagako jubilatuen etxeko presidenteorde bezala aurkeztu ninduen Miguel de los Toyos alkatearen aurrean, eta ikusi ninduen zera esan zuen azken honek: “Hara, eskatzen dakien beste bat”. Bai, Udalean eskatu dut eta eskatzen jarraituko dut, baina ez

niretzat, baizik eta jendearentzat. Baina tira, kontua ez da saltsan ibiltzea gustatzen zaidala, horrela tokatu den zerbait izan da.

**Nola sortu zitzaizun Untzagako jubiletxearen zuzendaritzan sartzeko aukera?**

Felixekin egin nuen topo behin eta esan zidan jubiletzeko kontuekin lagundu behar niola

lan-karga arintzeko. Eta bat-batean, presidente.

**Baina aukera hau posible zela ikusten zenuen?**

Bai, iaz Felixek kargua utzi behar zuela eta nik hartu behar nuela esan zidalako. Bat-batekoa izan da, baina egokitzen joateko aukera izan dut. Dena dela, Felixek laguntzen jarraituko du, mentorea izango da,

zaila delako bere moduko pertsona bat isilik egotea. Txan txak alde batera lagata, otsailaren 27an omenaldia egingo diogu Coliseoan. 12 urte egin ditu jubiletxearen gidaritzan eta aurretik urte askoan jendaurrean egin du lan; beraz, ondo merezitako omenaldia izango da.

### **Felixek lan handia egin du Untzagan. Listoia oso goian dagoela uste duzu?**

Hauxe ez da listoia kontua, gauzak egin behar dira hemen. Orain arte egin ditugun gauzak ondo daude, baina erronka asko ditugu aurretik. Bate-tik, jubiletxea eraberritu behar dugu, aldatzen joan behar gara poliki-poliki, gauza batzuetan atzean geratzen ari garelako. Bestetik, jubiletzeko kideen parte-hartzea sustatu behar dugu. Zentro honek 1.700 bazkide ditu, baina horretatik 200-300 dira ohiko erabiltzaileak. Batzuek ekintza jakin batzuetan bakarrik hartzen dute parte, gauza ezberdinak egiten direnean (irteerak, bidaiak...). Zer gauza interesatzen zaie lagun horiei? Zer gustatzen zaie? Ez dakigu, eta jakitea gustatuko litzaiguke. Horretarako, bazkide guztien buzoietara galdetegia bidaliko dugu eta, horrekin batera, jubiletxean egiten diren jardueren informazioa. Bazkideen zale-tasunak zeintzuk diren jakitea nahiko genuke. Horrela, gure eskaintza zabaldu eta aberastu ahal izango dugu, eta bazkide gehiagoren parte-hartzea lortu. Azken neurrian, arrazoi batengatik egin ziren bazkide, ez bakarrik karneta edukitzeko. Gainera, euren lanbidea zein izan den jakitea ere gustatuko litzaiguke, dituzten ezagutzak oso baliagarriak izan daitezke-lako jubilatuen etxearentzat.

**Felix mentore izango duzu, baina talde baten laguntza edukiko duzu gauzak egiteko?** Zuzendaritza-batzordea dugu, baina bakoitzak ahal duen neurrian ahal duena egiten du. Inor ez dugu ezertara behartzen.

## **“Bazkideen zale-tasunak zeintzuk diren jakitea nahiko genuke gure eskaintza zabalteko eta aberasteko”**



## **“Beheko pisuan leihatila bakarra jarriko dugu: Pegoran egiten den antzeko zerbait, baina pertsona nagusiei begira”**

Hori bai, lan-plangintza nahiko potoloa aurkeztu dugu eta nola egin aztertzen dihardugu azken asteotan. Beraz, bakoitzak ahal duen neurrian, baina lan egin behar dugu.

### **Nolako zereginak dituzue aurretik?**

Bate-tik, zuzendaritza-batzordea arlo digitalean hezitu behar da eguneratuta egoteko. Bestetik, jubiletzeko beheko pisuan obrak egingo ditugu. Lanak hilabete honetan edo hurrengoan hasiko dira eta pare bat hilabete iraungo dute. Ordurako bertan eskainiko diren zerbitzuak emateko beharrezkoa den taldea osatuta egon behar da. Bertan pertsona nagusientzako leihatila bakarra jarriko dugu izapideak egiten laguntzeko, informazioa emateko, Imbersoren bidaiak prestatzen laguntzeko... Pegoran egiten den antzeko zerbait, baina pertsona nagusiei begira.

### **Ohiko erabiltzaile diren 200-300 lagun horiek asko inplikatzeko dira jubilatuen etxeko jardunean?**

Erabiltzaileek taldetxoak sortu dituzte eta taldetxo horietan inplikatu egiten dira, baina ez dira zentroaren funtzionamenduen inguruko gauzetan inplikatu. Batzuek Tai Chi egiten dute, beste batzuek zumba, informatika ere bai, kartetan ibiltzen dira... Baina parte-hartze horretaz gain ez dira ur handiagoetan sartzen.

### **Zentroaren funtzionamenduan lagunduko duen jendea aurkitzea kostatzen da?**

Askok kostatzen da, bai. Horretatik nahi dugu bazkide izan eta etortzen ez diren horiek erakarri. Hobeto ezagutzen baditugu, behar dutena ematen badiegu eta ekarpenak egiten badituzte, gauza handiak egiteko gai izango gara. Adibidez, iaz bankuko langile ohi batzuek

eman zuten izena, baina ia ez dira hemendik agertu. Jubiletxearen kontuak eramaten dituen emakumeak kargua lagako du aurtan eta bankuan lan egiten zuten lagun hauen ezagutza oso baliagarria izan daiteke guretzat. Hala ere, garrantzitsua da eurek parte hartu nahi izatea, gogoia edukitzea, bestela akabo.

### **Lan-taldea eguneratu behar dela aipatu duzu, baina sare sozialetan nahiko aktibo zabilzate. Jubiletxe modernoa da zuena?**

Pertsona bat arduratzen da sare sozialak kudeatzeaz eta web-gunea martxan jartzea da gure asmoa. Oraindik ez daukagu prest eta ondo pentsatu behar dugu nola erabiliko dugun, elikatu egin behar delako. Web-gunea egin eta aktualizatu gabe edukitzen badugu, ez du zentzurik. Beraz, hori da gure asmoa, baina buelta batzuk eman behar dizkiogu oraindik. Hori bai, esan dezakegu Gipuzkoako lehen jubilatuek etxea gure arlo digitalean eta erakundeek hainbatetan esan digute hori; adibidez, Euskofederpenek (EAEko pentsiodunen eta jubilatuen elkarten federazioak). Aipatu behar da, bestetik, Euskofederpenen hurrengo batzarra Eibarren egingo dela eta Untzagako jubiletxean egitea eskatu zutela, baina guk Udalarekin egin dugu berba batzarra udaletxera eramateko eta han egingo da azkenean.

### **Udala aipatzen duzue: nolako harremana duzue Udalarekin?**

Oso ona! Primeran hartzen gaituzte eta harreman arin eta naturala dugu. Ez bakarrik Udala Gobernuarekin, baita oposizio alderdiekin ere. Felixekin aurrerapauso handiak egin ditugu, ateak ireki dizkigute, eta neure burua aurkeztu dudanean ere berdin.

### **Beraz, ilusioz ekiten diozue bide berri honi?**

Bai, ilusio handiz eta aurrera egiteko gogoz!



Amaia Valdivielso Debabarrena Integra-Bat EGINEZ programako formakuntza-arduraduna.

## Helburua, euskara ahalik eta azkarren ulertzea

DEBABARRENA INTEGRA-BAT EGINEZ programak 16. edizioa bete du aurten. Bazterketa sozialean erortzeko arriskua duten pertsonekin lan egiten duen egitasmoa da, Armeria Eskolako Elkarteak (AEE) gestionatuta eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta. Helburua pertsona horien gizarteratzea erraztea eta lan-mundura bideratzea da. Fabrikazio mekanikoaren arloan hezitzen dituzte, eta aurten berrikuntza bat sartu dute: euskarazko uler-saioak. Aitor Puy Arrieta Udal Euskaltegiko irakasleak gidatzen ditu euskarazko eskola horiek eta erabiltzen duten metodologia berritzailea gertutik ezagutu nahi izan dugu.

**A**rmeria Eskolaren pa-rean, Isasi kalean kokatuta dagoen EParen eraikinean harrapatu dugu Aitor Puy Udal Euskaltegiko irakaslea euskarazko klaseak ematen. Azken asteotan 60 ordu inguru eman ditu *Debabarrena Integra-Bat EGINEZ* programako ikasleekin. Erabiltzen duen metodologia Pello Jauregi EHUKo irakasle eta ikerlariak garatu du, eta Soziolinguistika Klusterrak argitaratu, Aldahitz ikerketa proiektuaren barruan.

Ulermenera bideratutako metodologia da. Helburua da ikasleek euskara ahalik eta az-

karren ulertzea. Irakasleak oso modu errazean hitz egin behar du, ikasleek ia dena ulertzeko moduan. Ikasleek hitz gutxi eta forma gutxi ezagutzen dituztenez, irakasleak ere hitz horiekin hitz egin behar du. Horrez gain, irakasleak etengabe egiaztatu behar du ikasleek ulertu dutela esandakoa.

Aitor Puy irakaslea pozik azaldu da esperientzia berriarekin. “Zazpi ikasle inguru izan ditut eta astean bi aldiz jardun dugu. Ikasleak gustura ibili dira. Pello Jauregik sustatutako metodologia berria da eta esperientziaz fasean dago. 60 ordu ema-

nez, ikasleak A1-A2 mailako ulermen-gaitasuna lortzea da helburua. Oraindik ikusteko dago emaitza horiek lortuko ditugun edo ez. Gipuzkoa mailan zortzi euskaltegi inguru ari gara metodologia hori probatzen. Hasieran proba bat egin genien euren ulermen maila neurtzeko eta orain, amaieran, beste bat egingo diegu, metodologiaren eraginkortasuna neurtzeko”.

Ez dute lantzen mintzamenik, irakurmenik, gramatikarik eta halakorik. Erdara ere erabiltzen dute ikasleek irakasleak esandakoa ulertu duten ala ez adierazteko. Ira-

kasleak beti euskaraz egiten du, eta ikasleak ahal badu bai, baina bestela gazteleraz.

### Klase dinamikoak

Aitorrek istorioak eta egunkarietako berriak kontatzen dizkie ikasleei. Askotan arbelean idazten ditu eta gero banan-banan galdetzen die ulertu duten ala ez. Azken boladan bideoak ikusten hasi dira. “Ikasleek euskaraz edo erdaraz erantzun dezakete, helburua ulertzea baita, eta ez hitz egitea”, dio Aitorrek.

Klaseak oso dinamikoak dira. Ariketa desberdinak daude eta Aitor etengabe ari



Ezkerrean, Aitor Puy Udal Euskaltegiko irakaslea eta, bere ondoan, DEBABARRENA INTEGRA-BAT EGINEZ programako ikasleak.

da eurei galdezka: "Ez daukate aspertzeko astirik, arreta mantendu egin behar dute eta pixkanaka hizkuntzak nola funtzionatzen duen jabetzen dira", azaldu digu.

#### Gizarte integrazioa helburu

Amaia Valdivielso Armeria Eskolako Elkarrekin kudeatzen duen *Debabarrena Integra-Bat Eginez* programako formakuntza-arduraduna da. Berak azaldu digunez, "gizarteratzeko eta laneratzeko programa da, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden langabetuentzat. 16 urte beteta izatea derrigorrezkoa da eta Debabarrena eskualdean bitztea".

*Debabarrena Integra-Bat Eginez* programa bi fasetan banatuta dago. Lehenengoan gaztelera eta matematika saioak eskaintzen dira EPAN (186 ordu), eta aurretik, esperientzia piloto bezala, euskarazko uler-saioekin hasi dira (60 ordu). Bigarren fasea Ar-

## "Oso metodologia dinamikoa da eta ikusi dugu jendea oso gustura egon dela"



BIDEOA ikusteko eskaneatu QR kodea

meria Eskolan izaten da eta hor lehenengo mailako profesionaltasun agiri bat egiten dute: Fabrikazio Mekanikoko Eragiketa Osagarriak (400 ordu + gutxienez 40 orduko praktikak). "Normalean matematika eta hizkuntza maila baxua izaten dute eta oso garrantzitsua da arlo horiek errefortzatea bigarren fasera pasa aurretik", dio Amaiak. Fabrikazio Mekanikoko ziurtagiria Lanbidekin finantzatu du.

#### Praktikak enpresetan eta emaitza positiboak

Maiatzean amaituko dute parte teorikoa eta, ondoren, praktikak egingo dituzte enpresa batean. Horrez gain, hurrengo ikasturtean bigarren mailako ziurtagiri bat lortzeko aukera izango dute; izan ere, "askok nahi izaten dute formakuntzarekin jarraitu", esan digu programako formakuntza-arduradunak.

Programaren 16. edizioa da aurtengoa, eta hainbat eta

hainbat ikasle laneratzeko ari direla ondorioztatu du Amaia Valdivielsok. Lan-munduan sartzeko daukaten arazoa da askok ez dutela lanerako baimena izaten, "baina kasu batzuetan baimen hori lortu ahal izan dute enpresak aurrekontratu moduko bat egin dielako eta, egia esan, oso emaitza positiboak izaten ari gara", dio Valdivielsok.

#### Euskarazko ulermen-saio arrakastatsuak

Euskal Herriko hainbat lekutan esperimentatzen ari diren euskarazko ulermen-saioak izan dira aurtengo berrikuntza *Debabarrena Integra-Bat Eginez* programaren baitan. "Ustedet euskarazko ulermen-saioen emaitzak oso onak izango direla. Oso metodologia dinamikoa da eta jendea oso gustura egon dela ikusi dugu. Eibarko Udarekin elkarlanean jarri dugu martxan eta datorren edizioari begira errepikatu egingo dugula uste dut", dio Amaiak. ■

# “Dinamika ezberdinak egiten ditugu talentua detektatzeko eta ahalduntzeko”

Irene Aguriondok eta Ane Davilak sortutako BASH taldeak pertsonengan eta bakoitzak duen talentuan sinesten du. Horregatik, sormena eta mugimendua sortuz, aniztasun funtzionala dutenentzako saioak eskaintzen dituzte. Iaz saio bat eskaini zuten Eibarren, baina aurten apustu sendoago batekin datoz: ‘Eibar mugimenduan’. Horren inguruan informazio gehiago behar izanez gero, @sombash kontuan aurkituko dituzue Instagramen edo jarri eurekin harremanetan asociacionbash@gmail.com helbidearen bitartez.

**Otsailaren 5ean zen hastekoa ‘Eibar mugimenduan’, baina atzeratu egin behar izan duzue. Hala ere, laster egongo zarete hemen, ezta?**

Bai. Kontua da 16 urtetik gorako gazteekin ibiltzen garelako bidez ere eta zapatu arratsaldeetan Txolartek aisialdi-saioak antolatzen ditu eurentzat. Bertan oso gustura dabiltzanez, beste egun batean jarriko ditugu saioak, Txolartek antolatutakoekin bat ez egiteko eta ahalik eta jende gehienari espazioa eskaintzeko. Laster emango dugu jakitera saioak noiz hasiko diren.


**Zer egiten duzue BASH proiektuan?**

BASH orain dela lau urte jarri genuen martxan Arrasaten. Aniztasun funtzionala duten gazteentzat espazioak transformatu nahi genituen, gure esperientziatik eta ikuspuntutik ikusten genuelako transformazio horrek ondo egin ahal ziela. Ez bakarrik maila pertsonalean, baita talde-lanari dagokionean ere. Horretarako, hiru lerro markatu genituen proiektuaren barruan.

**Zeintzuk dira?**

Batetik, ikastolen barruan egiten dugu lan, ZIG (Zeregin Ikaskuntza Gela) geletan. Arrasateko Arizmendi ikastetxean egon gara hiru urtez, eta Elgoibarko eta Eibarko ZIG eskoletan ere bagaude. Orduan, aniztasun funtzionala duten ikasleekin egoten gara eskoletan. Bigarrenik, aisialdirako ematen ditugu bariakuetan eta zapatuetan, eta

**# BASH TALDEA • Eibar mugimenduan #**



udalen bitartez bideratzen ditugu espazio horiek. Bi orduko saioak izaten dira eta aniztasun funtzionala duten gazteekin mugimendua eta sormena lantzen ditugu. Eta hirugarrenik, kirol elkarteekin gabiltz lanean ekitaldi puntaletan: Leintz Eskola Kirolarekin eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioarekin, adibidez.

**‘Eibar mugimenduan’ aisialdiaren atalean sartuko genuke, baina zertan datza?**

Hilabetean behin bi orduko saioetan, mugimendua eta sormena landuko dugu musikaren bitartez. Dinamika ezberdinak egiten ditugu pertsona bakoitzaren talentua detektatzeko eta ahalduntzeko. Horrez gain, ondo pasatzeko, espazio horretan ardura gabe ikasteko eta aurrerapenak edukitzeko egiten dugu hau.

**Zenbateko iraupena izango du programak?**

Azarora arte iraungo du, baina uztailean eta abuztuan etena egingo dugu. Saioak Portalean egingo dira.

**Nori dago zuzenduta?**

Adin-tarte bat finkatzen dugu beti, baina inori ez dizkiogu atek itxi nahi. Pertsona bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen ditugu dinamika guztiak, nahiz eta talde-lanak garrantzia duen. ‘Eibar mugimenduan’ programan 12 eta 21 urte artekoetan zentratuko gara printzipioz, baina edozein pertsonak gure espaziora etorri nahi badu, atek zabalik izango ditu.



BASH taldeak saio bakarra eskaini zuen iaz Eibarren eta demaseko giroa sortu zen parte-hartzaileen artean.

### Parte-hartzaileek baldintza- ren bat bete behar dute?

Gogoia edukitzea besterik ez. Aniztasun funtzionala duten gazteengan zentratzen gara batez ere, baina autismoa, Down sindromea edo beste sindrome batzuk dituztenekin ere ibiltzen gara. Hori bai, programak hasi aurretik parte-hartzaileek behar berezirik duten jakitea gustatzen zaigu, espazio seguruak sortzen laguntzen digulako.

### Iaz egun bat besterik ez zineten egon Eibarren, baina nolako esperientzia izan zen?

Oso ona! Gazte horiekin geunden lehen aldia zen, eta sortu genuen espazioa hain polita eta dibertigarria izan zen, gero zerbait hartzera joan ginela elkarrekin. Oso harreman estua eduki nahi duten gazteak dira eta errespetua landuz, musikaren dibertsitatea aprobeztatuz eta dantza eginez espazio seguruak sortu genuen, lagundu egin genien, eta aniztasuna existitzen dela eta guztiontzat aberasgarria dela erakutsi genuen.

## “Denok gara gai edozein gauza egiteko, moduren batean edo bestean”

### Horrelako programa batek zer eskaintzen die aniztasun funtzionala duten gazteei?

Lagunekin biltzeaz gain, musika oinarri hartuta, mugimendua, sormena, autoestimua, talentua eta beste hainbat gauza landu ahal direla ikusten dute. Hamar saioak amaitu ondoren, saioetan landutakoa, ikasitakoa eta aurreratutakoa erakutsi nahi diegu gurasoei eta parte-hartzaileei, euren egunerokoan lagungarriak izan daitezkeen dinamikak aurkitu ditzakegulako.

### Askotan gizarteak aniztasun funtzionalaren zakuan sartzen

## “Aniztasun funtzionala duten gazteentzat espazioak sortu behar dira gizarteak”

### ditu pertsona horiek eta etiketa horri dagozkion gauzak egitera mugatzen ditu. Zuek horrekin aputzen duzue.

Hori azpimarratzea garrantzitsua da, askotan gurasoek, irakasleek edo aniztasun funtzionala duten gazteek esan ditzuten gauza bat edo bestea ezin dutela egin, ez dela euren kontua, eta ez da horrela. Egiten ahalegindu behar dira eta ahalegindu ondoren ikusiko dute egin ahal duten ala ez. Taldeak eta pertsonak ondo ezagutzen saiatzen gara eta dinamika bera modu ezberdinean egin dezakete agian,


baina onura berdina izango da. Denok gara gai edozein gauza egiteko, moduren batean edo bestean.

### Eta, horrela, aniztasun funtzionala existitzen dela erakusten diozue gizarteari, tabuak apurtuz.

Bai, eta gehienbat ikustea kolektibo horretako zenbat gazte dagoen herrian. Pertsona guztiek beharrak ditugu, baina ez dira guztion beharrak asetzen. Udalak harritu egin dira aniztasun funtzionala duten gazteen kopurua ikusita. Euren entzatek espazioak sortu behar dira gizarteak eta herrietan.

### Bestetik, zer eskainiko duzue Eibarko ZIG eskolan?

Maiatzean jarriko dugu martxan programa eta 10 saio eskainiko ditugu. Eskola egunetan eskaintzen dugu, 12:30etik 14:00etara, astean birritan. Kasu honetan ere musika izango da oinarri eta mugimendua eta sormena lantzen da, baina dinamika hezkuntzara moldatzen ditugu irakasleekin elkarlanean.



Itziar Sapsootham  
Itziar Sapsootham

## Agur, Vir

Zaila da, gehienetan, agur esatea. Batzuetan, gure mesede personal eta mentalarentzat onuragarria da. Baina, normalean, agurrak eta horrek utzitako gabeziaren sentipena ez dugu bizi nahi izaten: urruntzen diren lagunak, haserreko motibatutakoak, apurketa sentimentalenak... eta heriotza. Betirako despedidak.

Ez gara prest egoten gertuko jendearen galerari aurre egiteko, eta uste dut lagunak kasuan denean are eta gutxiago prestatuak gaudela. Badakigu noizbait gurasoak, aiton-amonak, izeba-osabak... joan egingo direla, baina lagunak... Gurekin daude egunerokotasunean, gure adin antzekoa dute, lagunarteko planak partekatzen ditugu, poteoak, barreak eta negarrak, afariak soziedadean. Inoiz ez gaude prest utziko diguten hutsuneari aurre egiteko eta bere gertukoenei utzi dietena ikusteko.

### "Badakigu noizbait gurasoak, aiton-amonak, izeba-osabak... joan egingo direla, baina lagunak..."

Hamar urtetan, bi lagun joan zaizkit. Azkena orain. Tarte hau aprobetxatu nahiko nuke oso momentu txar batean nirekin hain eskuzabal portatu zen laguna agurtzeko. Ez ginen betidanik ezagutzen eta kasualitatez iritsi ginen lagun izatera, poteo eta juergetarako sortu genuen kuadrilla 2.0-aren parte ginelako biak. Beti zegoen hor, irribarretsu, kuriosa, eder eta glamourosa. Atzo lagun batek esaten zuen erreferente bat izan zela beretzat. Sentipena konpartitzen dut. Askotan pentsatzen nuen zein indartsua zen, zein independientea eta aldi berean zein maitakorra. Inoiz ere bere esentzia galdu gabe eta beti ere bizitaz gozaten. Baita bere bizitzako azkeneko momentuetan ere.

Bere legatua utzi digu: bizi, bizi eta bizi. Eta hori egingo dugu, berarekin konpartitzen genituen pintxobottle-etatik hasiz. Milesker eman eta utzi diguzun guztiatik. Maite zaitugu, Vir.



Koldo Edorta Carranza  
Koldo Edorta Carranza

## Bideoklub berriak

Liburutegi batean orduak eta egunak igarotzen dituzunean bertan dauden funtsen mugimenduaz jabetzen hasten zara. Konturatu gabe identifikatzen duzu egunkaria irakurtzera doan gizon edadetua, edota Narutoren azken alea berehala irensten duen nerabea. Baina bada nire arreta bereziki erakartzen duen erabiltzaile talde bat: zinematekan DVD eta Blue Ray artean dabilen lehendakaririk gabeko elkarte sekretua. Ez dira asko izaten,

baina fideltasun ikaragarriaz jarduten dute; astero-astero pelikula berri batzuen bila bueltatzen dira normalean ikus-entzunezkoen 7 egunetako mailegu data errespetatzeko. Beharbada, zazpigarren artearekiko dudana zaletasunaz gain bertoko iragana gogorarazten didatela, bereziki hunkitzen naute pertsona horiek. Hollywood bideoklub erraldoian murgiltzen ginenean, astebururako istorio berrien bila. Edo urte batzuk geroago, teknologiak aurrera egin ahala, Cinebank-en kutzazain automatikoa zirudien traman-kuluaz baliatzen ginenean.

### "Gaur egun, bideoklub gutxi bizirik dirautenean eta kutzazain automatikoak ixten ari direnean, liburutegiak dira artea eta gizatasunaren gotorleku"

Gaur egun, bideoklub gutxi bizirik dirautenean eta kutzazain automatikoak ixten ari direnean, liburute-

giak dira artea eta gizatasunaren gotorleku. Gainera, arrakala ekonomiko eta digitala ere txikiagotzen dute, zinema aretora joateko baliabideak ez dituztenei film berriak ikusteko aukera ematen baitiete. Ez hori bakarrik, azken hilabeteotan ekoizpen ugari Interneteko plataformetan estreinatu direnez, antzokietatik at, zinemateka publikoek bermatzen dute ordaindu barik artelan horiez gozatzeko parada. Honengatik guztiatik, oroitu ditzagun bideoklubetako bisitak eta erabil dezagun liburutegietako ikus-entzunezkoen mailegua, garai berrien beste albolkalte bat izan ez dadin.



# Kalitate goreneko lanekin datoz 45. Antzerki Jardunaldiak

Martitzen goizean aurkeztu zituzten 45. Eibarko Antzerki Jardunaldiak udaletxeko udalbatza aretoan Jon Iraola alkateak, Andoni Iturbe Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuordeak, María José Telleria Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendariak, Patxi Lejardi Kultura saileko zinegotziak eta Narruzko Zezen antzerki taldekoek. Nabarmendu zuten, berriz ere egitarau biribila osatu dute antolatzaileek, antzerkiarekin gozatzeko aukera esku-eskura ipinita. Bigarren urtez jarraian, eta pandemiaren eraginez, saio guztiak Coliseo antzokian izango dira. Otsailaren 22an abiatuko da egitaraua, Ramón Bareak eta Mikel Losadak eskainiko duten solasaldiarekin. Aurkezlea, berriz, Irene Hernando eibartarra izango da.

**H**ortik aurrera, apirilaren 1era bitartean, era guztietako antzezkiak eskainiko dituzte: komedia, drama, tragikomedia, kaleko antzerkia, dantza... Denetarik dauka edizio honetarako prestatu duten egitarauak eta horretarako aurrekontua 160.000 eurotik gorakoa izan da. Taularatuko diren lanetako gaiei dagokienez ere, denetarik dago: sare sozialak, teknologia, krisi ekonomikoa, klasikoak, antzerkiarekiko dedikazioa... Horiek dira aurtengo proposamenak ikutzen dituen gai nagusietako batzuk. Iazko moduan, aurtuen ere Coliseoan izango dira emanakizun guztiak, kalean eskainiko duten lan bat izan ezik.

Bestalde, Eibarko Antzerki Jardunaldiak gogora ekarri nahi dute iazko apirilean hil zen Rosa Martínez-Alcocer aktore eibartarra. Haren oroimenez, martxoaren 29an antzerki munduko bere lagunekin topaketa egingo da, berari buruz aritzeko. Berarekin batera antzerkian aritu izandako hainbat lagunek hartuko dute parte: Izaskun Asua, Paco Obregon, Sardo Irisarri, Alfonso Torregrosa, Ignacio Amestoy eta Mariano Estudillo, besteak beste.

Jardunaldiak zabaltzeko otsailaren 22an egingo den hitzaldi-solasaldiak garrantzi handiko bi gonbidatu bilduko



Aurkezpenaren BIDEOA ikusteko eskaneatu QR kodea

**Otsailaren 22tik apirilaren 1era arte ia egunero gozatu ahal izango da antzerkiarekin, herritik kanpora joan barik**

ditu: Ramón Barea eta Mikel Losada. “El veneno del teatro” izenburuari jarraituta, antzerkigintzan zuzendari eta aktore gisa horrenbeste urtez izan dituzten harreman eta esperientziei buruz arituko dira. Aurkezlea, berriz, Irene Hernando antzerkigile eibartarra izango da. Betiko moduan, ez da sarrrerarik kobratuko, baina sartu aurretik gonbidapena hartu beharko da nahitaez.

Hurrengo egunean Fernando Fernán Gómezen “El viaje a ninguna parte” taularatuko dute Teatro Fernán Gómezek eta Teatro Arriagak, Ramón Barearen zuzendaritzapean. Barea berarekin batera beste antzezle ezagun batzuk arituko dira taula gainean: Patxo Telleria, Mikel Losada, Itziar Lazkano, Irene Bau, Aiora Sedano, Diego Pérez eta Adrián García de los Ojos.

Eta otsailaren 24an ailegatu da edizio honetako atzerriko proposamena: “Magallanes y Elcano”, Pedro Diogo eta Nuria Cuadrado aktoreak protagonista dituen sorkuntza kolektiboko nazioarteko tragikomedia, Ajidanha&Eme2 (Portugal&A Coruña) taldeen eskutik. Antolatzaileen berbetan, “hainbat kulturen elkarbizitza, kode eta hizkuntza globalak eta duela urte batzuk toki ezezagunetara egindako bidaietatik geratu zaigun identitate-herentzia aztertzen ditu” lan honek.

## Lau antzezlan euskaraz

Txalo Produkzioak-en “Lehendakari gaia” izango da edizio honetako beste proposamen handienetako bat. Ramón Madalularen komedia euskaraz eskainiko dute lehenik, otsailaren 28an, eta martxoaren 2an, berriz, gaztelazko bertsioan aurkeztuko dute. Kasu bietan Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga izango dira aktoreak.

Eta, euskarazko eskaintzarekin jarraituz, “Zintzilik”, Quico Pugèsen musikala eskainiko dute martxoaren 5ean, familia osoarentzat pentsatutako ordutegian, gainera. Marrazki bizidun, bideo-joko eta film


## Egitaraua &gt;&gt;&gt;

OTSAILEAN				
22 (martitzena)	19:00	"El veneno del teatro" hitzaldia	90 minutu	Gonbidapenarekin
23 (eguztzena)	19:00	"El viaje a ninguna parte" (Fernán Gómez&Teatro Arriaga)	115 minutu	12 euro
24 (eguztzena)	19:00	"Magallanes y Elcano, el viaje" (Ajidanha&Eme2, Portugal)	80 minutu	12 euro
<b>28 (astelehena)</b>	<b>19:00</b>	<b>"Lehendakari gaia" (Txalo Produkzioak, Gipuzkoa)</b>	<b>80 minutu</b>	<b>12 euro</b>
MARTXOAN				
2 (eguztzena)	19:00	"El candidato" (Txalo Produkzioak, Gipuzkoa)	80 minutu	12 euro
4 (barixakua)	19:00	"La verdadera historia..." (Spectare, Madril)	80 minutu	12 euro
<b>5 (zapetua)</b>	<b>17:00</b>	<b>"Zintzilik" (Zintzilik Teatrea, Gipuzkoa)</b>	<b>60 minutu</b>	<b>5 euro</b>
6 (dometua)	19:00	"LOF Ladies On Fight" (DOOS Colectivo&Eva Guerrero, Bizkaia)	60 minutu	12 euro
<b>7 (astelehena)</b>	<b>19:00</b>	<b>"Ama" (Marie de Jongh Teatrea, Bizkaia)</b>	<b>75 minutu</b>	<b>12 euro</b>
<b>9 (eguztzena)</b>	<b>19:00</b>	<b>"Tarara" (Hika Teatrea, Gipuzkoa)</b>	<b>80 minutu</b>	<b>12 euro</b>
11 (barixakua)	19:00	"Golfá" (Primera Toma&Crémilo, Madril)	80 minutu	12 euro
12 (zapetua)	19:00	"Icaro" (STRAD el violinista rebelde, Madril)	80 minutu	12 euro
14 (astelehena)	19:00	"La panadera" (El Silencio Teatro. Iria Prod, Madril)	90 minutu	12 euro
17 (eguztzena)	19:00	"Celestina infernal" (Teatro Corsario, Valladolid)	60 minutu	12 euro
18 (barixakua)	19:00	"Una noche con ella" (Dosesmás&Pentación, Madril)	90 minutu	15 euro
19 (zapetua)	19:00	"Una noche con ella" (Dosesmás&Pentación, Madril)	90 minutu	15 euro
19 (zapetua)	12:30	"Aquiles" (LA FAM Teatre, Castellón)	60 minutu	Doan
19 (zapetua)	20:00	"Aquiles" (LA FAM Teatre, Castellón)	60 minutu	Doan
<b>21 (astelehena)</b>	<b>19:00</b>	<b>"Semea pixka bat motelago dabil soilik" (Tantaka, Gipuzkoa)</b>	<b>90 minutu</b>	<b>12 euro</b>
23 (eguztzena)	19:00	"Fake. Trampantojo" (Erre Produkzioak, Bizkaia)	70 minutu	12 euro
24 (eguztzena)	19:00	"Burdina/Hierro" (Cía Adriana Bilbao, Bizkaia/Iparalde)	70 minutu	12 euro
26 (zapetua)	19:00	"Cómicas" (Valeria Ros, Sil de Castro, Sara Escudero)	70 minutu	12 euro
28 (astelehena)	19:00	"Los secuestradores del lago Chiemsee" (Rokambolescas, Madril)	90 minutu	15 euro
29 (martitzena)	19:00	"Recordando a Rosa. Conversaciones"		Gonbidapenarekin
30 (eguztzena)	19:00	"Don Gil de Olmedo es sueño" (Lagartolagarto&Zazurca, Huesca)	80 minutu	12 euro
APIRILEAN				
1 (barixakua)	19:00	"El parke del crepúsculo" (Maricastaña, Ourense)	80 minutu	5 euro

## OHARRA

**Emanaldi guztiak COLISEO ANTZOKIAN** izango dira, "Aquiles" (otsailaren 19) izan ezik: **kale ikuskizuna** Urkizutik Untzagara egingo da, 12:30ean, eta San Andres pasealekutik Errebalera, 20:00etan.

**Prezioak COLISEOAREN LAGUNA** txartelaren **deskontua aplikatu barik** daude: 12 eurokoak 8,50 euro balio du bestela eta 15 eurokoak 10,50 euro.



Ramón Bareak eta Mikel Losadak zabalduko dute egitaraua, Irene Hernandok aurkeztuko duen solasaldiarekin.

SARREREN ALDEZ  
AURREKO SALMENTA

- Otsailaren 5ean, 6an eta 7an, alde zuzenetik hitzordua eskatuta, aukeraturako ordu-tegian, Coliseo antzokian.
- Otsailaren 7tik aurrera, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era, Coliseoko leihatilan.
- Internet bidezko salmenta otsailaren 5ean hasiko da, 10:00etatik aurrera, ticket.kutxabank.es/janto bitartez.



## SALMENTA ARRUNTA

Funtzio bakoitza hasi baino ordu bete lehenago, Coliseo antzokiko leihatilan.



luz hil zen Rosa Martínez-Alcocer gogoratuko dute.

famatuetatik hartutako doinu ezagunetan oinarritutako lana da eta, antzerki pasarte modura tartekatzen diren testu ezberdinen laguntzarekin, entzuleak jazzaren erritmo, armonia, melodia eta instrumentuen sekretuetan murgiltzen dituzte antzezleek.

Bestelako estiloa dauka Marie de Jongh Teatrea talde bizkaitarraren lanak: Jokin Oregik zuzendutako "Ama" tragiko-

media hamabi urtetik gorako helduei zuzendutako ikuskizuna da. Egileen berbetan, "elkar zaintzearen, gure bizitzaren zati bat beraiekin eramanez apurka-apurka hiltzen ari diren gure aita-ama zaharrak zaintzearen edertasun epikoari egindako kantua". Martxoaren 7an aurkeztuko dute.

Eta martxoaren 9an ibilbide luzeko konpainia baten txanda izango da: Hika Teatrea



“Zintzilik” euskarazko proposamen musikala familia osoarentzat pentsatutako ikuskizuna da.

Josi Alvaradoren “Tarara” antzezlan eskainiko du, Arantxa Iturberen itzulpenari jarraituta eta Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean.

Euskarazko azken proposamena beste antzerki konpainia ezagun baten eskutik dator: Tanttaka Teatroak “Semea pixka bat motelago dabil soilik” izenburuko tragikomedia aurkeztuko du martxoaren 21ean, Fernando Bernués zuzendariaren aginduetara eszenatokian arituko diren antzezle ezagunen parte-hartzea duen antzezlanean.

### Maila goreneko lanak

Egitaraua osatzen duten beste lan guztiek ere aipatzea merezi dute, bakoitzak arrazoi ezberdinegatik. Hori bai, kasu guztietan maila goreneko lanak direla nabarmendu zuten antolatzaileek egitarauaren aurkezpen egunean: “La verdadera historia de la muerte de Francisco Franco”, Laura Ortégak zuzendutako tragikomedian, diktadorearen heriotzaren inguruko bertsioguztiz ezezaguna kontatzen dute; “LOF (Ladies on fight)” izeneko Eva Guerrerok zuzendutako dantza ikuskizuna da; “Golfá”, berriz, sexualitateari bu-

ruzko komedia da eta publikoari parte hartzeko aukera ematen zaio, momentuan mezuak bidalita; “Icaro”, Jorge Guillén Strad “El violinista rebelde” biolin-

jotzailearen eskutik ikusi ahal izango den ikuskizun musikala; Producciones Iria-ren “La panadera” antzezlanak, berriz, istorio dramatikoak kontatuko



digu; “Celestina infernal” lana, bestalde, Fernando de Rojasen liburuan oinarrituta dagoen helduentzako txotxongilo ikuskizuna da; “Una noche con ella”, Loles León ezaguna protagonista duen komedia; “Aguiles, kalejira modura planteatutako ikuskizuna; “Fake Trampan-tojo”, Gabon Zahar gauean giro-tutako tragikomedia; “Burdina/Hierro”, Adriana Bilbao eta Beñat Achiary-ak sortutako dantza ikuskizuna; “Cómicas” izenburuaren azpian telebista eta telesailengatik oso ezagunak diren hiru emakume (Valeria Ros, Sil de Castro eta Sara Escudero) daude, ikustera doan jendeari barrea eragiteko prest; “Los secuestradores del lago Chiemsee”, Alberto Iglesias-ek idatzitako komedia; “Don Gil de Olmedo es sueño”, Lagartolagarto eta Zazurzca konpainien eskutik datorren komedia klasikoa; eta “El parque del crepúsculo” izenburuko lana, berriz, Paul Austerren “Sunset Park” eleberrian inspiratuta dagoen tragikomedia.

Eibartarrak Antzerki Jardunaldietarako girotzen joateko, Lekim Animazioak taldeko ki-deak kalean ibiliko dira bihar, etzi eta etzidamu.



# Armagintzaren Museoak 15 urte bete ditu

Urtarrilaren 18an Armagintzaren Museoaren 15. urteurrena bete zen. Armei lotuta joan da herriaren historia eta, hortik abiatuta, Eibarko industriak eman dituen asmakizun, sorkuntza eta bestelako ondasunak jarri ditu ikusgai museoak urte hauetan. Ostera, 15 urte ez dira nahikoak izan herriaren historia garaikidea kontatzeko eta museoak kontakizunarekin jarraitzeko gogo biziz dago, Marina Barrena Armagintzaren Museoko arduradunak esan digun bezala.

**E**ibarrek XX. mende hasieratik izan du Arma Museo. Eibartar talde batek jarri zuen martxan Armeria Eskolarekin eta 1914an inauguratu zuten armagintzari bultzada emateko asmoz. Museoak 580 arma zituen, guztiak herriko fabrikanteek eginak, eta bilduma aberasten joan zen Lehen Mundu Gerraren sasoian Eibarren egin ziren arma guztiekin.

1936an, Armagintzaren Nazioarteko Erakusketa zela-eta, Eibarko arma-bildumaren erakuskari bat Parisera bidali zen; baina, Gerra Zibila hasi zenez,

hara eramandako armak ez ziren bueltatu.

Gerraostea latza izan zen eibartar gehienentzat, baita Arma Museoarentzat ere. 1960. urtearen inguruan museoaren modu penagarrian zegoen. Hasierako museo hura zeharo txikituta zegoen: arma balioetsuenak desagertuta, eskolan geratzen zirenak baztertuta... Orduan, Jose Ormaetxea Armeria Eskolako zuzendariaren eraberritzeko lanetan hasi zen. Arma Museo berrantolatze eta handitze ardurak hartuko zuen batzordea eratu

zen eta hainbat arma bildu zituzten, baita 1936an Parisera bidalitako 43 armak ere.

Harrezkero, Armeria Eskolak hartu zuen museoaren ardura, 2000. urtean Udalak lekukoa hartu zuen arte. Marina Barrenak 2003an jaso zuen Portalean Armagintzaren Museoaren martxan jartzeko gonbidapena eta 2007an zabaldu zuten Portaleko 5. solairuan. Orduan 426 suzko-arma eta 42 armazuri zituen museoak, eta Udalak Star, Bonifacio Echeverria SA lantegiaren arma-funtsa erosi zuen (400 arma inguru)

bilduma osatzeko, besteak beste. Gaur egun, 11.500 piezek osatzen dute Armagintzaren Museoaren: 1.000 arma inguru, 5.000 objektu eta 5.500 dokumentu... eta hazten jarraitzen du.

## **Eibartar guztiok osatutako museo**

Azken 15 urteak "politak izan dira", Marina Barrenak esan digunez. "2007an arma-erakusketarekin zabaldu genuen museo, baina bi urte geroago 2. fasea ireki genuen herriko ibilbide historikoarekin",

diosku. Harrezkero, jarduera erakargarriak, aldi-baterako erakusketak eta mota guztietako ekitaldiak antolatatu dituzte ahalik eta jende gehiagorengana iristeko asmoz. "Traupen-lasterketa izan da", arduradunaren ustez.

Museoaren 2. fasea irekitzeko eibartarren laguntza behar izan zuten museokoek. "Eibarren egindako produktuak, objektuak... behar genituen eta ia-ia zerotik hasi ginen", diosku Barrenak. Orduan, "herritarren eskuzabaltasunari esker", hiru hilabetetan erakusteko moduko bilduma osatzea lortu zuten. "2009tik gaur egunera arte milaka objektu jaso ditugu eta eskertzekoa da. Azkenean, eibartar guztion artean osatu dugu museoaren bilduma", go-raipatzen du.

Eibarko historiaren erakusgarri diren piezak gordetzea eta zabaltzea da museoaren funtzioa eta, Barrenaren ustez, Armagintzaren Museoak ondo betetzen du funtzio hori. "Batetik, geneuzkanak baino pieza gehiago gorde ditugu; eta bestetik, mota askotako erakusketak egin ditugu piezak argitarara eraman eta mota askotako diskurtsoak zabaltzeko. Ez bakarrik armaren ingurukoak,



Marina Barrena da Armagintzaren Museoaren arduraduna. EKHI BELAR

baita herriko industriak sortu dituen produktu ezberdinenak ere", museoaren arduradunaren berbetan.

Aldi baterako erakusketen bitartez museoaren funtza osatzen duten piezak argitarara ematen joan dira 15 urte hauetan eta, horretarako, aukera onak izan dira herriko zenbait fabrikak urte hauetan ospatu izan dituzten urteurren bereziak.

"Adibidez, BOJek 110 bete zituenean erakusketa berezia egin zen, baita Elorza eta Larrañagaren mendeurrenean ere. Asko izan dira mota horretako erakusketak", diosku Barrenak. "Museoaren diskurtsoa nahiko orokorra da, herriko armagintza eta industria hartzen dituelako bere baitan, baina mota horretako erakusketek produktu edo ekoizle ja-

kin baten historian zentratzeko eta sakontzeko aitzakia ematen digu", gehitzen du.

Barrenak bere lana maite du eta atsegin handiz antolatzen ditu erakusketak. "Erakusketak asko egin ditugu eta denek sortu dute interesa. Zaila da bat aukeratzea", diosku. Eibarko museoan ez dago pieza izarrik, ez dugu Giocondarik edo Gernikarik, mota ezberdinetako pieza esanguratsu asko edukitzea da Armagintza Museoaren indarra. "Interes ezberdinak asetzen dituen museo da. Edonork bere intereseko zerbait aurki dezake bertan", Barrenaren iritziz.

### Jatorria ezagutzearen garrantzia

Museoaren papera berebizikoa da nondik gatozen jakiteko eta, era berean, etorkizunera begiratzeko. "Adin bat daukagunok ondo ezagutzen dugu gaur egungo Eibar, lehengo Eibar industrialia zuzenean bizi izan genuelako: taladrina usaina, burdinezko txirbilak, gainean etxebizitzak zituzten tailerak...", gogoratzen du Barrenak. "Gaur egun beste hiri bat dugu, seguraski erosoagoa eta politagoa, baina gaurko Eibar ulertzeko herria nolakoa izan

688 62 76 89  
**ESKERTZAK ETA URTEURRENAK**  
943 20 09 18  
Urkiizu, 11 - solairuartera  
publizitatea@etekitto.eus

FUNEUSKADI Grupo Asista  
FUNERARIA MUGICA Funeuskadi

TANATORIO EIBAR  
FUNERARIA MUGICA  
Tanatorio Crematorio Bero y Alto Oito  
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xivilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao - Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao



**Eibarren sortutako armak ikusteaz gain, herriko industriaren historian ibilbidea egiteko aukera ematen digu Armagintzaren Museoa.** EKHI BELAR

zen jakin behar dugu”, bere iritziz.

Eibartarrok Portalean dugu gure historiaz jabetzeko aukera eta, Barrenaren ustez, “gure historiaz harro sentitzeko” balio dezake bisitak. “Hain herri estu eta txiki batetik gauza asko ateratzeko gai izan garela ikusi daiteke museoan”, diosku.

Eibartarrentzat gure historiaren inguruan hausnartzeko balio badigu, Armagintza Museoa herriaren erakusleihoa da kanpotik datozenentzat. “Izan garena eta zer egin dugun erakusten du. Hau da, gure izaera islatzen du”, arduradunaren ustez.

Jatorri ezberdineko bisitariak izan ditu museoak. “Eibartarrak aldi baterako erakusketak egiten ditugunean etortzen dira batez ere. Gero, hotelera etortzen diren turistek ere bisita egiten digute. Eta bestetik, turismo-industrialak egiten duen jendea etortzen da. In-

teres handia duen jendea da hau eta espresuki etortzen dira hona, ez da bat-batean sortzen zaien plan bat”, azpimarratzen du zuzendariak. “Hona ez dira balagalduek etortzen”, gehitzen du barrez.

Adinari dagokionez, umeei interesa pizten die museoak. “Armak eta umeak nahastea ez dirudi politikoki zuzena denik, baina asko dakitela ikusten dugu, bideo-jokoetan arma-jokoetan ibiltzen direlako”, diosku Barrenak.

Urritik eainera eguaztenetik zapatuta 16:00etatik 20:00etara irekitzen ditu atea museoak eta domeketan 10:00etatik 13:00etara; uztailan eta irailan martitzenetik barixakura 16:00etatik 20:00etara; eta abuztuan martitzenetik barixakura 10:00etatik 13:30era. Sarreraren prezioa 3 eurokoa da, baina jubilatuek eta taldeek deskontuak dituzte, eta 7 urtetik beherakoak eta herriko ikastetxeetako taldeak doan sartzen dira.

Urtarrilean argazkilaritzari buruzko erakusketa amaitu zuten eta Ernest Hemingway idazleak Eibarrekin izan zuen harremanari buruzko erakusketa jarriko dute martxan laster. “Arma zalea zen eta hemen egindako bi eskopeta zituen. Bi edo hiru aldiz Eibarren egon zela dokumentatuta dago”, esan digu Barrenak erakusketara etortzeko gonbidapena eginez. ■



Elkarrizketaren BIDEOA ikusteko eskaneatu QR kodea

**“Gaur egungo Eibar ulertzeko, herria nolako izan zen jakin behar dugu”**

## 35 laguneko taldeak egin zuten Deba Bailarako laugarren etapa

>>> Kanpazarren hasi eta Aramaion amaitu zen etapa egin zuten Deporrekoei aurreko zapatuan. Ibilbideak ahalbidetzen zuenez, batzuek zuzenean Betsaide alderantz jo zuten, beste batzuek harrobiak eskumara laga eta, behetik gora xut, Udalatxen gailurrerantz jotzeko; guztiek ere “poliki-poliki behelainoa zulatzen joateko”. 1.053 metrotik ikuskizun bikaina izan zuten: “Hodei-itsasoa beheko aldean, haren gainetik mendi garaiak ipar zein hego, mendealde zein ekialderantz: Aizkorri, Aralar eta Beriaín, atzerago Pirinioa zuri, Arandia mendilerroa Errioxan, Gorbeia harroka bere ilardierdia luzitzen, Kan-



tabria aldeko gainak; hurbil-hurbil Oiz, gero Izarraitz eta Hernio”. Goitik beherakoak, Betsaidera eraman zituen guztiak. Aldapan gora berriro, Te-

llamendira (835 m.) iritsi ziren. Handik ere, ikuspegi ederra: “Anboto erraldoi, Orixol eta gainerako mendisokak begira-begira zituela”. Beherantz hasi eta

Arabako lurretan sartu ziren, Aramaio ibarra jomuga zutela; han bazkari goxoa zuten zain.

Otsailaren 12an Deba Bailararen Itzuliaren bosgarren etapa osatuko dute, Aramaio eta Leintz Gatzagaren artean, bidean 1.32 metroko Orixol gaindituz eta Kruzetatik pasatuta. Guztira 19 kilometro eta erdi izango du ibilbideak: igoera metatua 1.190 metrokoa eta jaitziera 1.065ekoa

Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko, interesatuek Deporretik pasatzeko aukera duzue martitzen eta eguenetan (19:30-20:30) edo 943201904 telefono zenbakira deituta.

## Astelenak hiru pilota-jaialdi hartuko ditu gaur eta domekaren artean

>>> Gaur bertan afizionatuen mailako hiru partidu jokatuko dira, 18:30ean hasiko den jaialdian. Lehenengoan, Errendimendu mailako Gipuzkoako eskuz binakako txapelketaren barruan, Eibarko Varona-Seguroa bikoteak Zestoako Abantzu 2 ordezkatuko duena izango du aurrez-aurre. Jarraian, Udaberri Txapelketaren barruan, heldu federatuen artekoa izango dugu, eskuz binaka modalitatean: Azkargorta-Conde Eibarko bikoteak Zumarragako Beloki 1 pilota klubeko ordezkariei aurka jokatuko du. Amaitzeko, Emakumezkoen Master Cup-eko elite mailako parti-

dua izango da, pilotari ezagunekin (Olatz Arrizabalaga eta Enara Gaminde alde batetik eta Amaia Aldai eta Andrea Capellan bestetik).

Domekan bi saio izango dira Katedralean, goiz eta arratsaldean. 10:00etan hasiko da Emakumezkoen Eskuz Binakako Master Cup Laboral Kutxaren jardunaldia hartuko duen jaialdia, hamar partiduk osatuko duten goizaldean. Lehenengokoak pilota goxuarekin jokatuko dira, gazte mailakoarekin hasi eta seniorrekin jarraitzeko. Ondorengoak pilota mistoarekin jokatuko dira, eta promozio mailako norgehiogak izango dira tartean.



Iribarria-Rezusta bikotea sailkapeneko lehen postura heldu da.

Domeka arratsaldean, bestalde, binakako txapelketa nagusiko partidua izango da jaialdiko partidua nagusia. Iribarria eta Rezusta sailkapeneko liderrek Jakak eta Mariezkurrenak osatutako bikotea izango dute aurrez-aurre, lehenengo fasea amaitzeko hiru jardunaldiren faltan garrantzi handia izango duen puntuaren

bila. Arratsaldeko jaialdi horri promozio mailako txapelketa norgehiagoka batek emango dio hasiera, Victor-Gaskue eta Zubizarreta-Eskiroz bikoteen artekoak, hor ere sailkapenaren bila. Amaitzeko, bestalde, maila handiko lehia izango da, Aspeko Elordi-Galarza eta Pello Etxeberria-Bikuña bikoteen artekoa.

## Eibar Igerixan-eko gazteenek Legazpin eta Azpeitian lehiatzen

>>> Aurreko asteburuan bi lehiaketa izan zituzten Eibar Igerixaneko gazteenek. Zapatuan Legazpiko Bikuña kiroldegian jokatutako ben-

jaminen txapelketaren bigarren jardunaldian, boskotea izan zen parte hartzen: Jon Guinea, Martin Rascon, Yago Lopez, Unai Medina eta Ane

Larrañaga. Domekan, berriz, Azpeitiko kiroldegian alebilen Teknikazio Saria jokatuz eta horko boskotea Itsaso Castrillo, Itziar Eiriz, Alba Sie-

rra eta Izaro eta Jokin Onkak osatu zuten. Castrillo, gainera, bigarren izan zen 100 libreetan. Eibar Igerixan-ek harrobia zaintzen jarraitzen du.

## Lau domina herriko atletentzat probintzietako txapelketetan

>>> Aurreko asteburuan Donostian jokatuak absolutu mailako probintzia bietako pista estaliko txapelketetan Klub Deportiboko atletak urrezko domina bat, zilarrezko bi eta brontzezko bat euren gaitasuna zizuten. Eneko Larreak Bizkaiko txapela jantzi zuen altuera jautsian, 2'04ko markarekin, berak duen onenarengatik oso gertu. Urko Martinez txapeldunorde izan zen Gipuzkoako altuera proba horretan eta Carlitou Mendik postu bera eskuratu zuen jauzi hirukoitzean, 12.15 metroko markarekin. Azkenik, Nora Zabala hirugarren postuan sailkatu zen luzerako jauzian, jauzi hirukoitzean laugarren egiteaz aparte. Emaizta esanguratsuenen artean daude ere Elene Arrazolak 60 metroko lasterketan lortutako marka (bere seriea irabazi zuen 16 urte azpikoen lehen urtean dagoenean) eta Kepa Marquezek distantzia bereko proban irabazitako seriea.

Bestalde, Julen Teranek eta Kalaka Gonzalezek Jaenen

jokatutako Espainiako kros txapelketan hartu zuten parte Euskadiko selekzioarekin. Maila altuko proba horretan Teran 64.a izan zen absolutuetan eta Kalaka 49. postuan helmugaratu zen 20 urtetik azpikokoetan.



Kalaka Gonzalez eta Julen Teran.



## Arrate Eibar Eskubaloiko lehen taldeak lehengo bidetik hasi zuen bigarren itzulia

>>> Asfaltos Redondo Solozabal Navarreteren pistan 26-29 irabazita, lidertzan sendo jarraitzen dute eibartarrek, Helvetia Anaitasuna bigarrenarekiko sei puntuko aldeari eutsiz. "Emaizta erakusten duen baino kontrolatuago" izan zuten partidua oraingoan Andoni Perezek zuzendu zituen jokalariek (Fernando Fernandez eta jokalaririk batzuk etxean geratu behar izan ziren, gaixotasuna medio, eta ema-

kumezkoen talde nagusiaren entrenatzaileak hartu zuen haren lekua), Errioxan jokatutako ia partidu guztian hirulau goleko tartearekin aurretik joanda. Jon Barrueta beña izan zen goleatzaile onena, zortzi golekin, Lander Casadok seirekin eta Axier Gisasolak eta Mikel Zuloagak, bakoitzak bostekin, ondo lagunduta. Asteburu honetan Tarazona hartuko dute eibartarrek Ipurua kiroldegian.

## Ezusteko emaitzak foball zaletuen txapelketako jardunaldi arraroenean

>>> Sailkapeneko hiru lehenak ez ziren gauza izan euren partiduak aurrera ateratzeko Eibarko foball-zaletuen liga txapelketako azken jardunaldian. Are gehiago: sailkapeneko lehenengo biak galdu egin zuten, hirugarrenak sailkapeneko azkenarekin berdintzen zuten bitartean.

Emaizta horiekin sailkapena ere estutu egin da neurri batean, euren atzetik zeuden taldeak nagusi izan zirelako euren norgehiagoketan. Ferredu Bar EzDok-ek eta Garajes Garciak 24 punturekin

jarraitzen dute sailkapenaren gorengoan, 22rekin -eta bi partidu gutxiagorekin-dago Bar Txoko, 20ra iritsi da Adahi Eraieder (Garajes Garciari irabazi eta gero) eta 18 ditu America Sport-ek (Durangori gailendu ondoren). 16 puntutara iritsi da JMR Tankemans, Ferreduri irabazita, eta 15ekin daude Ipur Sagardotegia eta Durango. Atzean geratu diren hirurak ere gero eta gertuago daude elkarrengandik: Bar Banaka L. Ruedak 9 puntu ditu, Bali Sports Center-ek 8 eta Chic-ek 7.



## Urpekaritza ikastaroak antolatu dituzte martxorako

>>> Eibarko Klub Deportiboko urpekaritza batzordeak, urteroko martxari jarraituz, bi ikastaro antolatu ditu hurrengo martxorako: izar batekoa izango da bat, urpekaritzan hastekoa, eta bi izarrekoa bestea, urrats bat gehiago emateko prestatuta-

koa. Martxoan hasiko dira biak eta izena ematea nahi dutenek informazio gehiago jaso dezaketete subacuaticas@deporibar.com helbidera idatziz edo 619468046 telefono zenbakira deituta. Plaza kopurua mugatua izango da.



## Behelanoak agindu zuen krokodiloen eta putreen artekoan

>>> Aurreko domeka goizean jokaturako partidua berezia izan zen guztiz. Errugbikoa izanda, oraingoan lokatza ez zen protagonista izan, behelanoak hartu baitzuen bere tokia: zelai guztia hartu zuen, jokoa ia ezinezko bihurtzeko. Hala ere, partidu ezin borrokatuagoa eskaini zuten Sevillakoek eta etxekoek, hortik amaierako parekotasuna. Unben 12na berdindu bazuten, beste berdinketa bat eman zen eurekin hor goian dauden



Olimpico Pozuelo eta Majadahondaren arteko neurketan, azken horien kasuan 31ra. Top-4an sartzeko lehia inoiz baino borrokatuagoa dago fase hau amaitzeko lau jardunaldi besterik geratzen ez direnean. Unbeko partiduan Corteva Cocosek aurrea hartu zuen bitan eta, lehen zatirean amaierak seinako berdinketa erakusten bazuen, gauza bera gertatu zen partidua amaieran; meritua handia, beraz, eibartarrena,

atzetik joanda aurkariaren parera iristeko gaitasuna erakutsita. Hilaren 13an izango dute Eibar Rugby Taldekoek hurrengo erronka, Olimpicoren aurka. Une honetan Ohorezko Mailako sailkapena honela dago, goi postuetan: Majadahondak 34 puntu ditu, Corteva Cocosek 32, Eibar Rugbyk 28, Olimpico Pozuelok 26 eta Complutense Cisnerosek 21. Aterago geratu dira CRAT, 19 punturekin; San Cugat, 15ekin; eta SANSE.

## Garaipen errazak waterpoloan, seniorren zein haurren mailan

>>> Senior mailako gizonen taldeak bi partidu jokatu zituen azken asteburuan, bata Kopakoa eta Ligakoa bestea. Kopa txapelketan, final-zortzirenetako norgehiagokan, Urbat-Urkatronik-ek bigarren mailako Urgara Txingudiri 15-3 irabazi zion, "tramite hutsa" izan zen partiduan. Ligakoan, bestalde, joko bikaina ginez, Iruñako

WP9802 taldea 20-8 gainditu zuen, kalitate handiko golekin eta defentsarako jarrera onarekin, "taldeko jokoa egiteak dakartzan abantaile jakitun". Haurren Liga Mistoko partiduan, bestalde, eibartarrak 3-23 gailendu zitzaizkien Waterpolo Donostiakoei, Orbeako waterpolo eskolaren bilakaera onarekin jarraituz.



## Eibar FTK lidergoari eusteko asmoz izango da El Molinon-en

>>> Almeriari eta Huescari irabazi eta gero, Gaizka Garitano-ren mutilak Smartbank Ligako sailkapenaren gorenean daude, Valladolidetik baino bi puntu gehiagorekin. Bihar Xixongo El Molinon zelaiari izango dute hurrengo erronka, arratsaldeko 20:30ean hasiko den neurketan. Lehenengo itzulian Ipuerat pasatzerakoan liderrak ziren asturiarrak gaur egun eibartarrendik 17 puntura daude; hala ere, ez da partidu erraza izango eibartarrentzat. Ipueruako klubak ez du fitxaketarik egin urtarrilean zabaldu-tako neguko "leioan" eta, bestalde, Roberto Olabek taldea laga du Alcorconera joateko.

Ez da gauza bera gertatu Iberdrola Ligako taldearekin,

azken honek Carmen Alvarez eta Natalie Muth fitxatu baititu, Sara Navarro galdu duen bitartean. Atletico de Madridetik lagata etorritako Alvarezek, gainera, gola ere sartu du armaginentzat. Garaipen garrantzitsua lortu zuten Unben jokaturako azken partiduan Madrid taldearen aurrean eta, puntu horiei esker, jaitsiera postuetatik pixka bat ihes egitea lortu dute. Azken aldi hainbat bajarekin jokatzen ari den Ana Junyenten taldeak "ezinezko misioa" izango du asteburu honetan Bartzelona ahalguztidunari egingo baitiote bisita etzi goizean, 11:00etatik aurrera, jokatuko den neurketan. Hor ere izango dute zer ikasi.

## Jonathan Garciak urrezkoa irabazi zuen grappling-ean

>>> Aurreko zapatuan Barakaldoko Lasasarre kiroldegian jokaturako grappling borroka modalitateko txapelketan, gure herriko Kalamua kluba ordezkartzen zuen Jonathan Garciak urrezko domina irabazi zuen beste behin, aurreko urteetako lorpenekin jarraitzeko.

Bihar, bestalde, hitzordu bikoitza izango dute Kalamuako judoek Legazpin. Alde bateatik, umeen kirol jardunaldia izango da jokoan; eta, bestetik, jiu-jitsuko Gipuzkoako txapelketa jokatu da, aurten nazioarte mailan. Dominak jasotzeko aukera berri bat!



Kalamuako ordezkaria justu boskotearen erdian.





## “El perdón” dantza ikuskizuna hartuko du Coliseo antzokiak datorren barixakuan

Losdedae konpainiak “El perdón” dantza ikuskizuna aurkeztuko du datorren barixakuan (otsailak 11), 19:00etan Coliseo antzokian.

Chevi Muraday-ren zuzendaritzapean, eta bere koreografiari jarraituta, Juana Acosta aktore ezaguna arituko da taula gainean, Chevi Muraday

bera lagun duela. Barkamena-ri buruzko dantza ikuskizuna proiektu oso pertsonala da Kolonbian jaio zen aktorearentzat. Izan ere, bera dantza klasetik irten zenean jakin zuen bere aita hil zutela.

Sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).



## “Zuhaitzak landatzen zituen gizona” eskainiko dute bihar

Euskaraz, familiarekin batera ikustera joateko moduko antzezlan eskainiko dute bihar arratsaldean, 17:00etan Coliseoan: Jean Gionno da “Zuhaitzak landatzen zituen gizona” izenburuko antzezlanaren egilea eta, José Carlos García zu-

zenduta, Sandra Fernández eta Fran Lasuen eibartarra arituko dira eszenatokian. Gorakada Teatroaren eskutik datorren lana ikustera joateko sarrerak 5 euro balio du eta lehiatilan zein Internet bidez erosteko aukera dago.



## Mireia Agirrebeña eibartarraren erakusketa ikus daiteke Topalekuan

Barixakuan zabaldu zuten Arrate Kultur Elkartearen Topaleku aretoan “Saiakerak”, Mireia Agirrebeña eibartarraren lanekin osatutako erakusketa. Artistaren berbetan, “teknika ezberdinez egindako margolanez gain, oraingo nere izate aldaketei dagokien beste lan batzuk aurkezten ditut. Bertan agertzen da Instagramen orain dela gutxi sortu dudana MiriMarrakzi marka. Txikitutasunaren bizitasuna eta sortzen dizkidaden sentimentuak isladatu nahi izan ditut bertan. Dena ez delako berde, dena ez delako beltza”. Otsailaren 13ra arte joan daiteke ikustera, astegunetan 18:30etik 20:30era, eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

## Egunean Behin joko bueltatu da

Astelehenean hasi zen Codesyntax enpresa eibartarrak sortutako Egunean Behin jokoaren 9. denboraldia. EITBk babestuta, 10 asteko iraupena izango du denboraldi berriak, hau da, Aste Santura arte. Martxoaren 4an hiru urte beteko ditu Egunean Behin jokoak eta demaseko arrakasta izan du. Aurreko bi denboraldietan finalak telebistan zuzenean eman zituzten eta oraingoan ere finala egiteko asmoa dute.



## Pello Zabala hil egin da

Pello Zabala (Amezketan, 1943) fraide frantziskotarra eta idazlea hil egin da, “COVID-19ak lehendik zituen osasun arazoak areagotu ostean”, eguaztenean EITB.eus atariak jakitera eman zuenez. Zabala Arantzazuko santutegian bizi zen 10 urte zituenetik eta oso ezaguna zen. Euskadi Irratian ere ibili zen hainbat urtez, hasieran musika klasikoari buruzko saioa gidatzen eta eguraldiaren iragarpenak ematen gero, tenporetan oinarrituta. Hain zuzen ere, eguraldiaz berba egitera etorri zen gurera, 2014an, Urko Aristirekin batera “Udarik... izango dugu aurten?” hitzaldia ematera.



**Otsaila, otsoen hil hotza.** PERIKO IRIONDO

## “Sare sozialetan ere euskaraz” kanpainak aurrera jarraitzen du

>>> Urtarrilaren 24an abiatu zen “Sare sozialetan ere euskaraz” kanpaina eta datozen egunetan ere martxan izango dugu. Kanpaina honen helburua gaur egun horrenbeste erabiltzen ditugun sare sozialetan euskarak duen presentzia areagotzea da. Izan ere, gero eta gehiago dira sare sozialetan bitartez euren establezimenduko produktu edo zerbitzuak ezagutzera ematen dituzten merkatariak, eta, denda fisikoaz gain, erakusleho birtualari etekina ateratzen diotenak.

Baina, honetan ere, gaztelaniak abantaila ateratzen du eta euskaraz jarduten duten dendariak ez dira asko. Horri buelta emateko, edo beste ohitura batzuk ezartzeko helburuz, urtebete da ...eta kitto! Euskara Elkartea, Eibarko Udaleko Euskara eta Ekonomia eta Garapena Sailak, EMGI eta Dendari Elkartea elkarlanean ari direla Eibarko merkataritza eta bertako hizkun-

tza, euskara, sustatzeko. Horren barruan, eta neguko beherapen-kanpainan erabat murgilduta, herriko dendariak horrenbeste erabiltzen dituzten sare sozialetan burutzen ari den kanpaina abiatu da.

Dendarien parte-hartzea polita izaten ari da eta euskara erabili ohi ez duten batzuk ere animatu dira euskaraz idaztera. Beste batzuen aldetik, aldiz, nabarmena da zenbat hazi den euskaraz argitaratzen dituzten edukien kopurua.

“Sare sozialetan ere euskaraz” kanpaina berezi honek otsailaren 7ra arteko iraupena izango badu ere, ohituretan eragitea eta sare sozialetan euskara naturaltasunez erabiltzea da azkeneko helburua. Horretarako, lagungarriak izan daitezkeen esaldi eredu batzuk ere eskaini zaizkie.




## Makina Erremintaren museora hainbat bisita egin dituzte berbalagunek

>>> Bi taldetan banatuta eta bi egun ezberdinetan bisitatu dute Eibarko berbalagunek Elgoibarko Makina Erreminta museoa. Badira hogeit urte baino gehiago museoa ireki zutela, etxetik gertu dugu, baina, hala eta guztiz ere, ezezaguna da askorentzat. Berbalagunak gozatu zuten bisita, deskubrimendua izan da askorentzat; bertoko industriaren historia- ren zati garrantzitsua bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea.

## Auzoetako jolasak otsailaren 11n itzuliko dira berriro

>>> Urtarrileko saioen ondoren, otsail-eko bigarren astean ekingo zaio berriro Barixakuak Jolasian ekimenari. Joan den barixakuan Urkizun egindako jolasekin amaitu zen urtarrilari zegokion egitaraua, eta otsailekoa 11n hasiko da. Egun horretan Txaltxa Zelaiko kiosko inguruan egingo dira jolasak, betiko moduan HH3 eta LH2 mailen arteko umeentzat, doan eta lau begiraleren laguntzarekin.



## Play- back online lehiaketa

>>> ...eta kitto! Euskara Elkartea hoguei urte baino gehiago daramatza Aratostee- tako jai egitarauan Play-Back lehiaketa antolatzen. Aurten, iaz bezala, online egin beharko da.

Lehiaketa LH 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzenduta dago eta, asko jota sei lagunez osatutako taldeetan, bideoz grabatu beharko dute euskarazko abestiren bateko play-backa (bideoa horizontalean). Bideoa otsailaren 24a baino lehen normalizazioa@etakitto.eus helbidera bidali beharko dute, eta izen- emate fitxa eta irudia erabiltzeko baimen- dokumentua ere erantsi beharko diote.



Hemen dituzue lehiaketa- rako oinarriak eta irudia- baimena eta izen-emateko dokumentuak.

## Argazki-transfer ikastaroa ...eta kitto!-n

>>> Midoriaren atzetik argazki-transfer ikastaroa antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkartea otsailaren 15ean Ilunabarrian programaren barruan. Ikastaroan argazki edo irudi bat egurrera transferitzen irakatsiko da, “eta pieza zoragarriak sortuko ditugu”, tailerra emango duen Urkoren hitzetan. Ikastaroa ...eta kitto!-n egingo da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, eta izen-ematea zabalik dago (943200918/elkartea@etakitto.eus). 3 euro balio du.

**GABONETAKO SOBERAKINAK SAIHESTEN**

Zelan iritsi sofaraino bidean **15 JAKI**  
baino gutxiagorekin estropezu eginez?



6	5	1	8			
					6	
7	3					8
	8		9	1	4	
		1	7			
	6	1	8		5	
3				7		4
	2					
		3	2	9		5

9	1	8	9	2	1	8	9
8	9	2	1	8	9	2	1
7	2	1	8	9	2	1	8
2	1	8	9	2	1	8	9
9	1	8	9	2	1	8	9
8	9	2	1	8	9	2	1
7	2	1	8	9	2	1	8
2	1	8	9	2	1	8	9
9	1	8	9	2	1	8	9

soluzioa

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

1	8	9	2	1	8	9	2
8	9	2	1	8	9	2	1
7	2	1	8	9	2	1	8
2	1	8	9	2	1	8	9
9	1	8	9	2	1	8	9
8	9	2	1	8	9	2	1
7	2	1	8	9	2	1	8
2	1	8	9	2	1	8	9
9	1	8	9	2	1	8	9

soluzioa

		7			4	5
		1		7	5	
5	9	1	6	3		
3	5	6		7		
		9		1	3	8
		3	1	8	9	6
		2	5		7	
9	8				5	

# Otsailak 4/10

## BARIXAKUA 4

### ZINE-FORUMA

**18:30** "Una joven prometedora" (Emerald Fennell). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Pagatxa elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



## ZAPATUA 5

### ANTZERKIA

**17:00** "Zuhaitzak landatzen zituen gizona" (Gorakada), euskaraz, familia osoarentzat. 5 euro. Coliseo antzokia.



### KIROLA FAMILIAN

**17:30** HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

## DOMEKA 6

### KIROLA FAMILIAN

**17:30** HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipuru kiroldegia.

### DOMEKAK KIROLIAN

**17:45/19:45** Kirola eta jolasak, 8-11 urte arteko haurrentzat. Ipuru kiroldegia (kantxa berdea).

## ASTELEHENA 7

### BIODANTZA

**17:00/19:00** Biodantza saio irekia, Ainhitze Elizburu Etxeberria bideratzailearekin. Doan. Helmet House-n.



## MARTITZENA 8

### IBILBIDE OSASUNTUAK

**10:00** Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

### FILOSOFIA

**10:00/12:00** Elkarriketa filosofikoak, Marisa Iglesiasekin. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

### IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

**19:00** Kattalin Miner, "Turista klasea" nobelari buruz. Antxon Narbaizak gidatuta. Portalea (1. Batzartokia).

## EGUAZTENA 9

### IBILALDIA

**09:09** Errekalde-Lasarte-Usurbil irteera (Ikasten). Bazkaria sagardotegian. Ardantzako tren geltokia (09:11ean Estazioan).

### ZINEMA

**17:30/20:00** Zinema (Musika zikloa): "Copying Beethoven" filmari buruzko saioa, Juan Aldaik dinamizatuta. Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



## EGUENA 10

### HITZALDIA

**10:00/12:00** "Datuen negozioa (Google, Facebook, Microsoft, Amazon)". Hizlaria: Miguel Arroitauregi (Filologia Klasikoan eta Zientzia Politikoetan lizentziatua, irakasle jubilatua). Ikasten elkarteak antolatuta. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

### ODOL-EMATEA

**16:30/20:30** Odola ematera joateko saioa, emaleentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

## ERAKUSKETAK

**Otsailaren 13ra arte:**

– "SAIAKERAK",  
MiriMarrazkiren arte erakusketa (Topaleku)

**Otsailaren 20ra arte:**

– "CORNALES, COLLARES,  
URTAROAK, NÁBULAS Y  
OTRAS OBRAS", Josué Pena  
(Portalea)

## ESKUALDEKO agenda

### ELGOIBARREN

#### MAGIA

**4an (barixakua) / 19:00**

#### Herriko Antzokia

Elgoibarko Niala magoaren ikuskizuna. Sarrerak [www.herrikoantzokia.eus](http://www.herrikoantzokia.eus)



### ERMUAN

#### ANTZERKIA

**4an (barixakua) / 20:30**

#### Ermua Antzokia

"Pomo versus Afroditá", Benetan Be konpainiarekin Sarrerak 10 eurotan.



#### ANTZERKIA

**5ean (zapateria) / 17:00**

#### Ermua Antzokia

"Ganbara (El desván)". Markeliñe konpainiarekin. Sarrerak 4 eurotan.



## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Felix Atxotegi Askasibar.** 91 urte. 2022-01-26.
- **Paz Esmeralda Matarranz Irigoien.** 79 urte. 2022-01-26.
- **Jon Garaizabal Isasti.** 90 urte. 2022-01-27.
- **Belen Olañeta Bilbatua.** 74 urte. 2022-01-27.
- **Juan Antonio Garcia Diez.** 92 urte. 2022-01-28.
- **Francisco Manzidor Antxustegi.** 78 urte. 2022-01-29.
- **Teresa Jauregi Larrarte.** 83 urte. 2022-01-30.
- **Alberto Manzanos Rodriguez.** 73 urte. 2022-01-31.

## Jaiotakoak

- **Yury Barja Gallastegi.** 2021-12-18.

## Farmaziak

### BARIXAKUA 4

EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### ZAPATUA 5

EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

### DOMEKA 6

EGUNEZ | **Morgado** (San Agustin, 3)

### ASTELEHENA 7

EGUNEZ | **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

### MARTITZENA 8

EGUNEZ | **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### EGUAZTENA 9

EGUNEZ | **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### EGUENA 10

EGUNEZ | **Lekunberri** (Isasi, 31)

### BARIXAKUA 11

EGUNEZ | **Elortza** (J. Gisasola, 18)

**GAUEZ BETI, 2022an,**  
**Mendinueta** (Urkizu, 6)

# Antonia Arizmendarrieta Larrañaga

2. urteurrena: 2020-02-4

“Beti gure bihotzean”

SEME-ALABAK ETA BILOBAK



# MANUEL URIA OLABARRIA

IV. urteurrena: 2018-11-5

“Inoiz ez zaitugu ahaztuko.  
Betiko gure bihotzetan”

ETXEKOAK





688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ELENE**, gaur 6 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu, sorgintxo! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NORA**, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Besarkada haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **EKHI!!** Urtetxo bat egin dozu. Musu haundi bat etxekuen partetik.



Zorionak, **OIHANA**. Bixar 8 urte. Gure pittintxu haunditzen ari da! Askok maite zaittugu. Etxekuk.



Zorionak, **ADRIANA!** Urtebetetxua egingo dozu domekan-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE**, hillaren 9xan 8 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Pabloren partez. Askok maite zaittugu!!!



Zorionak, **XABAT**. Bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Etxahunen partez.



Zorionak, **KATRIN!** Gure etxeko txapeldunak 13 urte bete zittuan hillaren 1ian-eta. Laztanak guztion partez. Bete aurrera, laztana!



Zorionak, **VALLE**, zure 5. urtebetetzian. Egun zoragarria pasa! Segi hain jator, zure famelixaren eta lagun partez. Maite zaittugu!!!



Zorionak, **JON!!** Etzi 5 urte!! Ederto ospatu eguna famelixa eta lagunekin. Patxo asko zure lehengusu-lehengusiña Ander eta Aneren partez.



Zorionak, **PAULE!** Martitzenian 3 urte egingo dozuz-eta! Musu haundi bat aitxitxa, amama, tia eta tioren partez!



Zorionak, **NERE!!** Bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, **LIBE**ren partez!



Zorionak, **AMATXO**-Amama eta **AITXA**-Aitxitxa, zuen 83 eta 84 urtebetetze egunian. Bihotzez, zuen etxeko famelixa guztiaren partez!!


## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **5an:** 19:00, 22:00
- **6an:** 20:00
- **7an:** 20:30

#### "El método Williams"

Zuzendaria: Reinaldo Marcos



### 2 ARETOA

- **5an:** 19:45, 22:30
- **6an:** 17:00, 20:00
- **7an:** 20:30

#### "Mira por mí"

Zuzendaria: Randall Okita



### ANTZOKIA

- **5an:** 16:00 (1 Aretoa), 19:45, 22:30
- **6an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **7an:** 20:30

#### "Moonfall"

Zuzendaria: Roland Emmerich



### ANTZOKIA

- **5an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **6an:** 17:00

#### "Tengamos la fiesta en paz"

Zuzendaria: Juan Manuel Cotelo



# Iragarki laburrak



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisu salgai Sallabenten (Ermua). 3 logela, egongela, sukaldea eta komun. Pisu altua eta eguzkitsua. Bista ederrak. Dena kanpora begira. . Tel. 605711422.

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

- Furgoneta bat alokatuko nuke egoera onean. Etxe-aldaketa bat egiteko, otsailaren 26tik martxoaren 2ra arte. Tel. 617265575. Avelina..

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Garaje zabala alokagai San Pion. Tel. 652775746.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- E Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631091264.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Tel. 641342619.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 632589202.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erizain-laguntzailea, tituluduna. Tel. 660511781.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta bulegoak edo etxebizitzak garbitzeko. 11 urtetako esperientzia. Tel. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631412316.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 643584198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta etxe-ko garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631308259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita erresidentzietan ere. Zaintzaile ziurtagiriarekin. Tel. 642403764.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 674457727..

### 4.2. Langile bila

- Eстетizista behar da. Tel. 605770226.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

- Eibarko akademiak euskara eta ingeles maila altuko irakaslea behar du LHko partikularrak emateko. Bidalit curriculum: info@itzamna.eus
- Dibujo Teknikoko irakaslea behar da Eibarren. Batxilergo Artistikoko 1. mailarako. Tel. 664391026.
- Ingeleseko irakaslea behar da Elgoibarko akademia batean. Tel. 667261248.
- Ingeleseko partikular irakaslea behar dut Erasmus prestatzeko. Tel. 616479840.

## 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate sarbiderako klaseak ematen dira, goiz eta arratsalde. Tel. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab. eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Bi armairu salgai, hiru atekoak. 2'20ko altuera, 3,060ko zabalera eta 0'45eko sakonera. Prezioa adosteko. Tel. 688661625.
- Ohe-buru eta oinak (1'35x1'90), mesilla, komoda, sarrerako altzarria, bisilla eta zutikako mahaia (marmolezko gainestalkiarekin) salgai. Oso merke. Tel. 627008888. Carmen.
- Egongelarako mahai handia eta erdirako mahai txikia salgai. Biak kristalezkoak eta oso egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 606882043.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Hilaren 15ean mendiko guante batzuk topatu nituen Arrate inguruan. Tel. 653724549.



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



## Euskararen **sozializazioa** eta **transmisioa** **XII. MINTEGIA**

Bertan zein streaming bidez jarraitzeko aukera egongo da



**MARTXOAK 16**  
**GORDE DATA**  
**AGENDAN!**



### **EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkide egiten zarenean  
Eibarren euskaraz bizitzearen aldeko apostua egiten ari zara.  
Elkarrekin urrutiago helduko gara.

# zarelakopara

*\*Bazkide kuotak 2022ko martxoko Batzar Nagusiaren ondoren eguneratuko dira.*

Izen-abizenak \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_  
Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_ NAN \_\_\_\_\_  
Jaiotze data \_\_\_\_\_ K/K zenbakia \_\_\_\_\_

**...eta kitto!**  
**Euskara Elkartea**

**Urkizu 11**  
943 20 09 18 - 943 20 67 76  
elkartea@etakitto.eus

## ARRATE VILLAGARCIA

### Urkotronik

“Ostalaritzan eta merkataritzan ari direnei TicketBAI ezartzeko behar duten guztia eskaintzen diegu”

Urkotronik 1983an sortu zen, ostalaritza eta vending arloetan ari direnen premiei erantzuna emateko asmoz. Negozio-unitate horietan merkaturako hornitzaile onenekin lan egiten dugu. Ostalaritza eta vending soluzioak eskaintzen ditugu eta merkaturaren beharretara moldatzen joan gara. Ildo horretan, gure bezeroei TicketBAI ezartzeko laguntza ematen diegu.

#### Zer da TicketBAI?

Hiru foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean partekatutako proiektua da. Sistema berriari esker, foru-ogasunek zergadunen jarduera ekonomikoaren diru-sarrerak kontrolatu ahal izango dituzte eta, horrela, zerga iruzurra saihestu. Indarrean sartzen denetik aurrera, jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek arau berriaren baldintzetara egokitzen den fakturazio-software bat erabili beharko dute. Oro har, fakturak eta tike-tak egiten dituzten profesional guztiek ipini beharko dute martxan.

#### Nola laguntzen diezue bezeroei TicketBAI ezartzen?

Ostalaritzan eta merkataritzan ari diren gure bezeroei arau berrira moldatzeko behar duten guztia eskaintzen diegu: Foru Aldundiari informazioa bidali ahal izateko softwarea, salmenta-puntoko terminala (TPV), horiek nola erabili erakusten diegu... Gainera, TPV edo terminalak bezero bakoitzaren premietara egokitzen ditugu, hau da, bakoitzak erabili beharko dituenekin prestatzen ditugu. Era guztietako negozioetan ari gara TicketBAI ezartzen: arropa dendetan, tabernetan, bitxidendetan...

#### Eta arazorik izanez gero, zerbitzu teknikoa ere ematen duzue?

Mantentze-lanetarako kontratua eginez gero, zerbitzu teknikoa asteke zazpi egunetan, astelehenetik domekara bitartean eskaintzen dugu.

#### Bestelako zerbitzurik eskaintzen duzue?

Eskudirutan kobratzeko sistemak ere eskaintzen ditugu, eskudirua denbora errealean kontrolatzeko. Hau da, “cashlogy” izenarekin ezagutzen dena. Sistema hau lehen aipatu dugun TPV terminalen osagarri gisara erabil daiteke, gainera.

#### Honi buruzko zalantzarik izanez gero, nora jo daiteke?

TicketBAI sistemari buruzko informazioa behar izanez gero, edo vending zein ostalaritzarako soluzioen inguruan zalantzarik izanez gero, gustora lagunduko diegu. Urkotronikera telefonoz deitu edo posta elektronikoa idatzi dezakete gurekin kontaktuan ipintzeko eta beraien premietara hobekien egokitzen den soluzioa emango diegu.



nez gero, gustora lagunduko diegu. Urkotronikera telefonoz deitu edo posta elektronikoa idatzi dezakete gurekin kontaktuan ipintzeko eta beraien premietara hobekien egokitzen den soluzioa emango diegu.

#### Noiz gomendatzen duzue TicketBAI ezartzea?

Gipuzkoako Ostalarien Elkarteak Aldundiarekin aste honetan egin duen bileran, derrigorrezko aldia azaroaren 1ean hasiko dela eta ez dela berriro luzatuko adierazi digute. Horrela, uda baino lehen ezartzea gomendatzen dugu, probak egiteko eta akatsak saihesteko eta, horrela, nahitaez bete behar denerako prest egoteko. Gainera, 2022ko irailaren 30a baino lehen tike-tak Ogasunera igortzen dituzten establezimenduek %60ko kenkaria izango dute, eta 2022ko irailaren 30etik aurrera tike-tak ogasunera igortzen dituzten establezimenduek %30ekoa.

